

Ttiki-ttaka

euskaldunon aldizkaria, 33. Zk.



Gora Viana eta Arabako Errioxa
euskaldunak!

Begiratu batean

araba euskaraz ²⁴ mugaezin

OLAGARRUA

GEURETIK SORTUAK

HIRU BHEITZ, OLAGARRU BAT, ERRO USARI
MUGA PIZI, MUGA ANIMA BAI BOKO

Mendabiako XXVI Kulturastea

maiatzak 19 igandea 19:00h
maiatzak 21 asteartea 19:00h
maiatzak 22 asteartea 19:30h
maiatzak 23 ostiratsua 12:30h / 15:00h / 18:30h / 22:30h

OLAGARRUA

ANTZERKI AROAK/TIPIA

Udalbiltza

Diagarrua

Hona Bostekoa Gure Komikiak euskaraz

maiatzak 19 igandea 19:00h
maiatzak 21 asteartea 19:00h
maiatzak 22 asteartea 19:30h
maiatzak 23 ostiratsua 12:30h / 15:00h / 18:30h / 22:30h

Lau elementuak

maiatzak 19 igandea 19:00h
maiatzak 21 asteartea 19:00h
maiatzak 22 asteartea 19:30h
maiatzak 23 ostiratsua 12:30h / 15:00h / 18:30h / 22:30h

Miércoles Social Mintzasteazkena

maiatzak 23 ostiratsua 12:30h / 15:00h / 18:30h / 22:30h



El Prao de La Paúl urmaela (Biasteri)



Musco aintzira (Biasteri)



La Mezana aintzira (Zieko)



MASKOIA

LABUBILLA

LANTZEHOND JUAN 2024. IRAILAN 8

10:30 ZURRANAPOTEEN ENTRERA KSKA LOKALA

13:30 ODOLU DASTAKETA

14:30 KARRUPOTEEN HERRI KIROLEKIN

15:30 SAZTE BAZARRA 15€

HASIERAKOAK (GAZTA, URDILAEPIKOA)

PAELLA

POSTRE

VEGETA AUKERA DAGO (KODERAZ TRANSFERENTZIAZ)

17:30

LABURRA

OSTIRALA 24

12:30 Puzgarria eta musika

13:30 Trikupoteka

14:30 Herri haiekia

15:30 Herri haiekia

16:30 Herri haiekia

17:30 Herri haiekia

18:30 Herri haiekia

19:30 Herri haiekia

20:30 Herri haiekia

21:30 Herri haiekia

22:30 Herri haiekia

23:30 Herri haiekia

24:30 Herri haiekia

25:30 Herri haiekia

26:30 Herri haiekia

27:30 Herri haiekia

28:30 Herri haiekia

29:30 Herri haiekia

30:30 Herri haiekia

31:30 Herri haiekia

32:30 Herri haiekia

33:30 Herri haiekia

34:30 Herri haiekia

35:30 Herri haiekia

36:30 Herri haiekia

37:30 Herri haiekia

38:30 Herri haiekia

39:30 Herri haiekia

40:30 Herri haiekia

41:30 Herri haiekia

42:30 Herri haiekia

43:30 Herri haiekia

44:30 Herri haiekia

45:30 Herri haiekia

46:30 Herri haiekia

47:30 Herri haiekia

48:30 Herri haiekia

49:30 Herri haiekia

50:30 Herri haiekia

51:30 Herri haiekia

52:30 Herri haiekia

53:30 Herri haiekia

54:30 Herri haiekia

55:30 Herri haiekia

56:30 Herri haiekia

57:30 Herri haiekia

58:30 Herri haiekia

59:30 Herri haiekia

60:30 Herri haiekia

61:30 Herri haiekia

62:30 Herri haiekia

63:30 Herri haiekia

64:30 Herri haiekia

65:30 Herri haiekia

66:30 Herri haiekia

67:30 Herri haiekia

68:30 Herri haiekia

69:30 Herri haiekia

70:30 Herri haiekia

71:30 Herri haiekia

72:30 Herri haiekia

73:30 Herri haiekia

74:30 Herri haiekia

75:30 Herri haiekia

76:30 Herri haiekia

77:30 Herri haiekia

78:30 Herri haiekia

79:30 Herri haiekia

80:30 Herri haiekia

81:30 Herri haiekia

82:30 Herri haiekia

83:30 Herri haiekia

84:30 Herri haiekia

85:30 Herri haiekia

86:30 Herri haiekia

87:30 Herri haiekia

88:30 Herri haiekia

89:30 Herri haiekia

90:30 Herri haiekia

91:30 Herri haiekia

92:30 Herri haiekia

93:30 Herri haiekia

94:30 Herri haiekia

95:30 Herri haiekia

96:30 Herri haiekia

97:30 Herri haiekia

98:30 Herri haiekia

99:30 Herri haiekia

100:30 Herri haiekia

EUSKAL KULTUR ESTEBURIA

BASTIDAN

OSTIRALA 24

12:30 Puzgarria eta musika

13:30 Trikupoteka

14:30 Herri haiekia

15:30 Herri haiekia

16:30 Herri haiekia

17:30 Herri haiekia

18:30 Herri haiekia

19:30 Herri haiekia

20:30 Herri haiekia

21:30 Herri haiekia

22:30 Herri haiekia

23:30 Herri haiekia

24:30 Herri haiekia

25:30 Herri haiekia

26:30 Herri haiekia

27:30 Herri haiekia

28:30 Herri haiekia

29:30 Herri haiekia

30:30 Herri haiekia

31:30 Herri haiekia

32:30 Herri haiekia

33:30 Herri haiekia

34:30 Herri haiekia

35:30 Herri haiekia

36:30 Herri haiekia

37:30 Herri haiekia

38:30 Herri haiekia

39:30 Herri haiekia

40:30 Herri haiekia

41:30 Herri haiekia

42:30 Herri haiekia

43:30 Herri haiekia

44:30 Herri haiekia

45:30 Herri haiekia

46:30 Herri haiekia

47:30 Herri haiekia

48:30 Herri haiekia

49:30 Herri haiekia

50:30 Herri haiekia

51:30 Herri haiekia

52:30 Herri haiekia

53:30 Herri haiekia

54:30 Herri haiekia

55:30 Herri haiekia

56:30 Herri haiekia

57:30 Herri haiekia

58:30 Herri haiekia

59:30 Herri haiekia

60:30 Herri haiekia

61:30 Herri haiekia

62:30 Herri haiekia

63:30 Herri haiekia

64:30 Herri haiekia

65:30 Herri haiekia

66:30 Herri haiekia

67:30 Herri haiekia

68:30 Herri haiekia

69:30 Herri haiekia

70:30 Herri haiekia

71:30 Herri haiekia

72:30 Herri haiekia

73:30 Herri haiekia

74:30 Herri haiekia

75:30 Herri haiekia

76:30 Herri haiekia

77:30 Herri haiekia

78:30 Herri haiekia

79:30 Herri haiekia

80:30 Herri haiekia

81:30 Herri haiekia

82:30 Herri haiekia

83:30 Herri haiekia

84:30 Herri haiekia

85:30 Herri haiekia

86:30 Herri haiekia

87:30 Herri haiekia

88:30 Herri haiekia

89:30 Herri haiekia

90:30 Herri haiekia

91:30 Herri haiekia

92:30 Herri haiekia

93:30 Herri haiekia

94:30 Herri haiekia

95:30 Herri haiekia

96:30 Herri haiekia

97:30 Herri haiekia

98:30 Herri haiekia

99:30 Herri haiekia

100:30 Herri haiekia



Errazionamendu garalan, gure mendiaren alde banatan bizi ziren halnbat herritarrek merkantziak ezkutuan garrailatu behar izaten zituzten mendian zehar beren familiak aurrera atera ahal izateko; zeregin latza eta isilean gauzatu beharrekoa. Gaur, Bilarreko lagunekin garai gordin hura gogora ekarri eta errekonozitu nahi dugu.

Geure Mendia lekuko.

ESTRAPERLOA



aunkibidea

HERRIZ HERRI

Editoriala	4
Biasteri	5
Bilar	9
Lantziego	10
Lapuebla de Labarca	11
Leza	12
Mañueta	13
Nabaridas	14
Oion	15
Viana	17
Zieko	19

TTIKI-TTAKA GALDEZKA

Inkesta	21
---------	----

ERREPORTAJEAK

Dantzan baitakigu	25
Ez da inorena, guztiona da	26
Paulo Freire HHI, hezkuntza Arabako Errioxan	27
KORRIKAREN 23. edizioa gure eskualdean	28
Aniztasuna bizirik irauteko	31
Mugaekin	32
Katuen kontuak	34
Euskararen Aholku Batzordea	37

ELKARRIZKETA

Orlando Arreitunandia Arinas	38
------------------------------	----

DENBORAPASAK

Denborapasak	42
--------------	----

NON GOGOIA, HAN ZANGOIA

Non gogoia, han zangoia	45
-------------------------	----

Badoa urtea aurrera, eta joate horrekin batera datorkigu aldizkaria. Elkarlanean egiten dugu aldizkaria, hau da, hainbat laguneri lanari esker dugu esku artean 33. ale hau.

Ohi bezala, bertan aurkituko ditugu herriz herri atala, elkarrizketa, hainbat erreportaje, urtean zehar burutako ekintza batzuen berri, EKA jaiari dagozkion argazkiak, eta, aspaldiko ohiturari jarraituz, **inkesta** bat egitera ere atera gara kalera.

Inkesta berreskuratzearen arrazoietako bat, zeharka bada ere, hauteskundeetan datza. Aurreko aldizkariako editorialean aipatu genuen zalantza bagenuela zenbat hautagaien programetan hartuko ote zuen lekua euskarak. Ikusi da. Euskarak ez du leku nabarmenik izan mitin eta programetan: zalantza argituta. Hala ere, bozkatzeko eguna hurbildu ahala, eta ikusirik, inkestek ziotenez, alderdi abertzaleen nagusitasuna eta garaipena erabatekoa izango zela, zenbait egunkarik eta sare sozialek hartu dute hizpide euskara, ez-abertzaleen botoaren bila, euskara diskriminatzen erabiltzen dela zabalduz hain zuzen ere. Hala, Bermeon bi umeri ez ziotela euskararik gabeko hezkuntzarik eskaintzen eta euskara inposatu egiten zela argitaratu zen zenbait egunkaritan. Edo duela urtebeteko kontu bat zabaldu zen sare sozialetan, ama baten haserrea adierazten zuena. Dirudienez, Nafarroako herri batean, ikastetxeak eskolaz kanpoko jardueretan *lego* euskaraz eskaini zuen eta *partxisa* gaztelaniaz; ama honen semeak (ume gehienek bezala, antza) *lego* egin nahi zuen, baina ez zuen aukerarik, euskaraz baitzen; horren aurrean, ama honen arabera, bere semea diskriminatua zegoen. *Diskriminazio* horrek atera gaitu inkesta egitera.

Ttiki-ttaka elkartearen xede edo helburu nagusia gure eskualde eta herrietan euskararen normalizazioan laguntzea izan da eta da. Ez da erraza izaten jopuntua gaur egun zein den zehaztea, baina honako lerrootan jomuga horren bila itsasargi izan nahiko genuke.

Aurtengo udaberrian Korrikaren bisita ere izan dugu eskualdean zehar; ekintza horri esker euskara gure egunerokoan hizpide bihurtu da, lekua hartu du gure elkarrizketetan, hainbat norbanakok, elkartek, erakundek... bat egin dute Korrikarekin eta euskararekin, behintzat hala erakutsi dute argazki eta bideoek. Baina Korrika etortzen den bezala, joan egiten da, eta orain zer?


Batek zioen: **“Lehentasunak argi daudenean, erabakiak erraz hartzen dira”**.

Aurreko esaldiaren harira, gai honen giltzetako bat hor daukagu: lehentasunak. Eta bestea helburu horiek lortzeko **ardura nork** hartuko duen.

Euskararen bidaia antolatzea joango bagina, lehenengo NORA joan nahi dugun, NOLA joango garen eta bukatzeko NORK eramango gaituen zehaztuko genituzke. Argi gelditu beharko litzateke ardura ez dela izango pertsona bakar batena, bakoitzak bere esparruan denok izango dugu ardura: Kuadrillan, udaletxean, ikastolan, enpresan, tabernan, upategian, etxean, kalean... Baina batzuek, beren lanbidearengatik, ardura politikoengatik, handiago behar lukete besteok baino.

Bukatzeko, aipatzekoa da, euskarak gure egunerokoan bere lekua hartu ezean, etorkizunean ezer gutxi izango duela egiteko. Hizkuntzaren normalizazioa gure eskualdeko jendeak ez badu ikusten behar bat dela, ez dago zereginik. Euskarak, gure hizkuntzak, arriskua izan lezake elementu folkloriko hutsean gelditzeko (Korrika, Araba Euskaraz eta antzeko jaiekin lortzen den osagaia garrantzitsua da, eta, jakina, inor ez dago kontra), eta, hori nahi ez bada, bultzatzeko ardura hartu behar da.

Bakoitzak hausnartu beharko luke bere esparrutik zer egin dezakeen; denon artean, berriz, lan hori gure eskualdean nola antolatu dezakegun eta, era berean, norabide trinkoa eraiki.



biasteri.....

Biasteri Inguruko Aintzirak



Ramsar-ko Hitzarmena edo Nazioarteko Garrantzidun Hezeguneei Buruzko Hitzarmena, bereziki Uretako Hegaztien Habitat Gisa Irango Ramsar hirian sinatu zen nazioarteko hitzarmena da, 1971ko otsailaren 2an sinatua eta 1975ean indarrean sartua. Xede nagusia hezeguneeen kontserbazioa eta erabilera arrazionala da, tokiko, eskualdeko eta nazioarteko ekintzen bidez eta nazioarteko laguntzari esker, mundu osoan garapen jasangarria lortzeko laguntza gisa.

2007an, mundu osoko 154 estatu batu ziren aipaturiko akordio honetara, 1.401 hezegune babesturik, 146,4 milioi hektareako hedadura osoarekin, Ramsarko Nazioarteko Garrantzidun Hezeguneeen zerrendan sartuak izateko izendatuak. Hiru urtetik behin, herrialde desberdinetako kideak biltzen dira, aurrerapenak ebaluatzeko eta ezagutzak eta esperientziak partekatzeko.

Nazioarteko garrantzidun hezeguneeen Ramsar zerrendan, 2000. urtean 1.200 toki zeuden (Ramsar tokiak); guztien artean, 1.119.000 kilometro karratuko hedadura hartzen zuten. Mota hauetako toki gehien dituen herrialdea Erresuma Batua da, 169rekin; zerrendaturiko hezeguneeen hedadurarik handiena hartzen zuen herrialdea Kanada zen, 130.000 kilometro karratu baino gehiagorekin, Maud Erreginaren Golkoa barne, 62.800 kilometro karraturekin. 2014. urtearen amaieran, aldiz, 2.181 toki zeuden, 208.545.384 hektarea 168 estatuetan.

Biasteri inguruko aintzirak Ramsar hiriko Hitzarmenean sartu ziren 1996ko abenduaren 9an. Harrezkeroztik, **Carravalseca**, **Carralogroño**, **Musco** (suspertze bidean) eta el **Prado de La Paúl** zeharo babestuta daude. Zenbait lagun, ordea, hitzarmenaren aurka agertu ziren; bertako ura beren pepinoak- eta ureztatzeko nahi zuten, nonbait. Orduantxe ez bezala, garai batean bertako ura baliatzeko ordaindu beharra zegoen, hau da, araututa zegoen enkante publikoaren bidez. Gerora hura galdu eta... “debaldeko jana”. Gehiekeriak. Anarkia.

Antzina, gaurko Ebroko harana urperatua zegoen, laku handi bat baitzen, itaso moduko bat. Ebro ibaiak katalandar litoraleko mendilerroa zulatu zuenean, lakua lehortu eta aintzira batzuk baino ez ziren geratu zokoguneetan drenajerik gabekoak, euriaz elikatuak. Aintziretan lurrinketa sakonek gatzen konzentrazio handia ekarri zuten. Horrela sortu ziren **Nabaridaseko** aintzirak, **Ziekoko** eta **Oiongo** kubetak eta **Biasteriko** Carralogroño, Carravalseca eta Musco aintzirak. El Prado de La Paúl urmaelak, berriz, ez ditu aurrekoen ezaugarriak, baina litekeena da antzina besteak bezalakoa izatea, **kubeta endorreikoa**, alegia. Egun, ur geza du euriteetatik eta mendiko erreketetatik datorkiona.



Aintziren garrantzia

Hain urtarokotasun nabarmena duen ingurune batean, askotarikoak dira bertako bizi-formak. Gainera, ingurune bitxia bada, forma horiek bereziagoak oraindik. Carralagroño eta Carravalseca aintziretan bitxikeria hutsa diren landareak bizi dira. Aintziren ertzetan, kasurako, gazitasunera egokitutako *belarkarak* eta *ihak* daude. *lezkak* azalera handiak hartzen ditu, bereziki, Carralagroño; han, hegazti asko babesten dira.



Aintziretako flora bitxia bada, fauna are bitxiagoa. Mediterraneoko itsasbazterreko ornogabe-espezieak daude. Talderik ikusgarriena hegaztien da. Aintzira naturalak leku pribilegiatuak dira **zangaluzeentzat**; migrazioetan, atseden-leku gisa erabiltzen dituzte. Zenbaitetan, aintziren urtarokotasuna dela eta, hegazti urtarrek ezin izaten dute txitarik hazi, ez baitaude urez beteta beharrezko garaian.

Prao de la Paúlekoak, berriz, ura du urte osoan, eta, horregatik, **basahateen**, **kopetazuri arrunten** eta **murgil handien** zenbait pare egoten dira bertan.

2021eko urrian **Arabako Diputazioak** El


Prao lehortzea erabaki zuen; ebazpen gogorra, baina guztiz beharrezkoa; izan ere, *espezie-inbaditzaile* ugari zegoen, zenbait personaren axolagabekeriak eraginda, zalantzarik gabe. **Floridako dortokak**, **karpak**, **perkak** eta **paduretako karamarro gorria** ziren, besteak beste, inguruarentzat ikaragarri kaltegarriak. Ia negu osoa eman zuten obretan: aintzira guztiz lehortu, espezie kaltegarriok jaso, hondoa garbitu eta hainbat hobekuntza egin ziren El Prao de la Paúl urmaelan.

Azken urteotako lehorte latzak ez du lagundu urmaela betetzen, baina **zenbait gorabehera larri** ere izan dira tartean (“ur-lapurrak”, ur-ihesa misterioitsuak, errekatxoen bidea besteratu...). 2024ko martxoaren hastapenetan, miraria balitz bezala, urmaela betetzen hasi zen azkar asko, eta, egun, berriz ere gozatzeko abagunea dugu. Hegaztiok berriz dira beren etxean.



Zain ditzaqun aintzirak!!!

Arabazozo pikartak lotarako bidean. **Joxemi Rodríguez** Biasteriko lagunak ateratako argazki aparta, hainbat ordu zain eman eta gero. Itxaronaldiaren saria.



Udaberriarekin batera, loreak eta bestelako kontu liluragarriak ageri dira. Dena berde eta loraturik, oparo. Landareak eta loreak bezalaxe, bestelakoak ere hazten dira udaberrian. Oraingoan Biasterin sortutako elkarte baten berri eman nahi dizuegu: HARRESIAN.

Sortzaileei lerro batzuk idazteko eskatu diegu. Horra hor zer azaldu diguten.

Antonio Cadarsok Erdi Aroko Laguardia eta haren gaztelua birgaitzeko lan birtualari ekin ondoren, eta **Pablo Cuesta** arkitektoaren laguntza preziatuari eta aurretik eginiko ikerketa eta birgaitze lanari esker, **HARRESIAN** elkarte sortu da orain gutxi, beste arkeologo eta lagunekin batzuekin elkarlanean. Historiako ondarea berreskuratu eta gordetzea helburu du elkarteak.

Harresian elkarte zenbait profesionalek sortu dute, gure eskualdeko kultur ondarearekiko konexioa galtzen ari zelakoan. Udazken batean bilduta, mahats-bilketaren koloreekin tindaturik, martxoaren 1ean *Garcetas* etxean egin zuten aurkezpena jendaurrean.

Laguardia: herri historikoa

Laguardia, estrategikoki muino baten gainean kokatua, hainbat herrik zeharkatu dute mendeetan zehar. Bere luraren geruza bakoitzak konkistak, berreskuratzeak eta kulturartekotasuna agertzen dizkigu. Historia aberatsa ez da soilik bere Erdi Aroko arkitekturan eta errenazentistan islatzen, baita belaunaldiz belaunaldi transmititu diren kontakizun eta legendetan ere.

Laguardiako gaztelua: irabazteko lkurra

Laguardiako gaztelua X. mendekoa da, Antso Garcés I.ak (Abarka, 938-994) eraikia. Komunitatearen erresistentzia eta eraldaketaren ikurra da. Hirugarren Gerra Karlistan suntsitu zuten, eta egun ia ahantzia dago. Gazteluak eskualdeko iragan militar eta sozialarekin zuzeneko lotura du. Gunea induskatzeak ez ditu soilik bere arkitektura-sekretuak agerian utziko, baita bertan bizi izan zirenen istorioak ere.

Egitasmoak

Harresian arkeologia ondarearen zaindaria gisa proposatzen dugu, arkeologia-lanak eginez eta bertako historia ulertzen laguntzeko ikerketa zehatzak sustatuz. Egitasmoak ez dira indusketa lanetara mugatuko; artefaktuak kontserbatzea, heziketa-tailerrak egitea eta unibertsitateekin lankidetzan aritzea eta ikerketa arkeologikoa bultzatzea izango dira, besteak beste, eginkizunetako batzuk. Komunitatea bere historiarekin konektatzean, nortasun eta atxikimendu-sentimendua sustatuko delakoan gaude. Elkartearen jarduerak hezkuntza-

Ttiki-ttaka 2024

turismoa erakarriko dute, bertako ekonomia suspertzen lagunduz eta kultur ondarearen kontserbazioarekiko interesa handituz.

Harresian ez da bakarrik arkeologia elkarte; historia berreskuratu eta omendu nahi duen mugimendua da. Elkarreak historiazale guztiei gonbidapena egiten die atzera begiratzera, oraina eta etorkizuna hobeto ulertzeko. Elkarrearen lanaren bidez, iraganeko aztarnak ez galtzea ziurtatu nahi da, ondorengoek goza eta baliatu ditzaten.


Ondoko irudiok Antonio Cadarsok egin ditu dokumentazioa sakon ikerketu ondoren. Esteka honetan kontu interesgarri andana ikusteko parada: <https://secretosdelaguardia.webnode.es/>



G enozidioa. Horixe da palestinar herriak Israelgo estatu sionistak eraginda pairatzen duen errealitate gordina. Gazako sarraskia hamarkadetako zapalkuntza basatiaren beste kapitulu bat, baino ez da; mendebaldeko potentzien konplizitatearekin burututako okupazio odoltsuaren beste adibide bat; milaka eta milaka erailketen kronika beltza.

Arabako Errioxatik gure ahots eta doinuak helarazi nahi dizkiegu palestinar anai-arrebei. Musika arma bihurtuz, diru laguntza bideratu nahiko genuke gose eta egarri artean bizirik dirauten lagunei. Ekarpen xume hau bizi duten sufrimenduaren aurrean gutxi dela badakigu, baina ahalegina merezi du.

Bilarrera gonbidatzen zaituztegu, **Ekainaren 15ean**, palestinar herriarekin elkartasuna adierazteko antolatu ditugun kontzertuetara. **Animatu eta etorri!**



**MUSIKA MAITATU! SIONISMOA GORROTATU!
PALESTINA ASKATU!!!**

Lantziego.....

Kasikojolabubilla Urtebete Herria Berpiztu Zutenetik



Lantziegoko herritarro *“bubillos/bubillas”* (argi-oilarrak) esaten digute, herriko kondaira bat dela eta. Garai batean argi-oilar bat jarri zen kanpandorrea eta hain bitxia iruditu zitzaion txoria, non, nola edo hala, hartu nahi baitzute. Nola igo, ordea, kanpandorreraino? Herriko kupel guztien bila aritu omen ziren; bata bestearen gainean jarri, eta ia-ia heldu ziren hartzera, baina bat falta zen **argi-oilarra** zegoen lekuraino iristeko. Orduan, bururatu zitzaion behean zegoena hartzea goian jartzeko eta... badakizue zer gertatu zen... Gainera, argi-oilarrak ihes egin zien azkenean.

Hori bera gertatzen da askotan herrietako gazteekin; hirira edo herri handiagoetara ihes egiten dute aisialdi hobearen bila, zerbitzu gehiagoren bila... Hala ere, Lantziegon aisialdiaren hutsune hori ez da hain nabarmena izan azken urteotan; izan ere, duela urte batzuk gazte talde bat elkartu zen, eta herrian bertan aisialdirako eta kulturarako aukerak sortzeko elkarte bat osatu zuten: **KASIKOJOLABUBILLA** (badakizue izena nondik datorren).

Azken urteotan lan handia egin dute, eta hori igarri da herriko jaietan, kultur-eskaintzan... Horretarako ekintza asko antolatu izan dituzte, bai kontzertuak, bai ikuskizunak, bai irteerak, txapleketak, bertso afariak edota dastaketak. Gainera, herriko jaietako zutabe garrantzitsu bihurtu da elkarteak, eta egitarauetako gazteentzako ekintzak haiek antolatzen dituzte; gazteek antolatu gazteen ikuspegitik, gazteentzat, eta, betiere, zenbait balore zainduta (euskara, ama-lurrarekiko maitasuna, feminismoa...). Horrez gain, duela urte batzuk, lokala ere ireki zuten, bertan ekintzak burutu eta gazteen topagune edo erreferentzia leku izateko.

Hala ere, bizitzako arlo guztietara bezala, koronabirusa iritsi zen, eta elkartean ere eragina izan zuen. Lokala itxi behar izan zuten, eta ekintza asko bertan behera utzi. Kontua normalizatu zenean, *ttipi-ttapa* ekintzak antoaltzeari ekin zioten, eta duela urtebete, gutxi gorabehera, lokala berriro irekitzea lortu zuten. Horrekin batera aisialdia berpiztu zen herrian. Urte honetan zehar hainbat eta hainbat izan dira antolatutako ekintzak, eta harrera oso ona izan dute Lantziego eta inguruko herrietako jendearengandik. Beraz, lokalaren berrikeriaren urteurrena ospatuko dute **ekainaren 8an**. Jai ikaragarria izango da; ez dago dudarik! Ea *Kasikojolabubilla* elkarteak horrelako urteurren asko ospatzen dituen aurrerantzean ere!



Lapuebla de Labarca.....

Spogomi eta, Gainera, Gabarra!



Apirilaren 26an, Lapuebla de Labarkako kaleetan ibili ginen zaborra jasotzen, Arabako Errioxako Kuadrillak antolatutako **Spogomi** Lehiaketan parte hartzeko. Baina zer da Spogomi? SpoGomi bi izenen konbinaziotik dator: *sport* eta *gomi* (japonieraz zaborra esan nahi du). kirola 3-5 pertsonako taldeen arteko lehia da: ahalik eta denbora laburrenean nork biltzen duen zabor gehien. Japonian 2008az geroztik mundu mailako txapelketa ospatzen da.

Arabako Errioxako ikastolek eta eskola guztiek parte hartu zuten lehiaketan. Lehiaketa honek helburu argia zeukan: zaborrari ematen diogun garrantzi ezari buruzko hausnarketa egitea eta kontzientziazio lana egitea. Ekitaldian Ikasle, Irakasle, guraso zein herritarrak parte hartu zuten, guztion artean haien herriak garbi mantentzekotan.



Athletic futbol taldearen garaipenak izan zuen oihartzuna ezin du inork ukatu. Beharbada batzuentzat astunegia izan zen horrenbeste aipamen komunikabide guztietan, eguna joan eguna etorri gai bera hizpide.

Nola nahi ere, Lapuebla de Labarca deitzen den herria izanda, **GABARRA** aterako ez genuen ba! Bai ba!!! Lapueblan ere gabarra atera zen, eta herriko *Athleticzaleok* ere **Plano enparantza** inguruan elkartu, eta primeran ospatu genuen gure futbol talde kuttunaren garaipena.

Argazkiko aurpegi poztasuna ikustea, besterik ez dago.

Leza.....

Kolonbia, Maroko eta Paraguai elkaturik Lezan

Orain dela urte batzuk etorri ziren lan egitera hiru emakume hauek: **Yuliet, Karima** eta **Fabiola**. Hirurak menpekotasuna duten adineko pertsonekin ari dira lanean. Ez dira, dena den, kanpotik etorritako eta herri honetan halako lana egiten duten bakarrak, baina bai gehien ikusten ditugunak.

Gure herriaz jarduten dugunean, neska horiek aipatzea ezinbestekoa dela pentsatu dugu, egiten dutena ezinbestekoa lana baita, eskertzekoa benetan.

Gizarte honetako gehienok ez dugu hausnartzen afera honetaz; hala ere, herriko adineko pertsona dezentek jarraitzen dute herrian halako emakumeek halako lana egiteko prest egoteari esker.

Yuliet Kolonbiakoa, **Medellin** hirikoa; Karima Marokokoa, **Fez** hirikoa; Fabiola Paraguaiakoa, **Ciudad del Este**koa.

Zer-nolako etorkizuna nahiko luketen galdetutakoan, haien erantzunak honako hauek dira: beren herrialdeetara itzultzea eta bertan lanen bat edukitzea; psikologia ikasketak bukatzea eta aisialdi gehiago izatea; leku lasai eta seguru batean irakasle izatea. Azken batean, leku aproposa izatea zoriontsua izateko.

Bejondeizuela! Zuen ametsak beteko direlakoan, milesker!



Herriko Gimnasioa Berritzen



Urte honen hasieran, duela 8 urte baino gehiagotik makina berberak erabiltzen eta gimnasioa joateko ordutegi eskasak izaten nekaturik, herriko gazte talde txiki bat akordio batera iritsi zen Udalarekin gimnasioa berriz biziartzeko.

Arazo nagusia entrenatzeko ordutegia zen, arduradun batek goizez eta arratsalde bi orduz astelehenetik ostegunera baino ez baitzuen irekitzen. Lan egiten edo ikasten duten eta entrenamendu-errutina bat eraman nahi duten pertsonentzat nahikoak ez diren orduak eta egunak. Arazo hori konponduta dago. Gaur egun, bazkide bakoitzak giltza elektronikoko baten bidez, sartzeko aukera du gimnasioa. Beraz, bakoitza ondoen datorkion orduan joan daiteke, eta, gainera, astelehenetik igandera.

Beste arazo bat zen makina-eskasia. Makinak zaharrak izatea alde batera utzita, oso gutxi zeuden behar bezala entrenatu ahal izateko. Izan ere, ez zegoen halterarik, ezta pisu-diskorik ere. Duela hilabete batzuk Udalarekin izandako bileraren ondoren, diru kopuru bat jarri zen eskura makina zaharrenak berritu ahal izateko, eta baita behar zen guztia erosteko ere, gimnasioari merezi duen erabilera emateko.

Gaur egun, honako hauek ditugu: 3 bizikleta estatiko, 2 eliptiko, 2 korrika makina, arraun-makina 1, funtzio anitzeko 2 makina eta muskulazio-eremua makina zentralarekin, halterekin, banku-presarekin eta abarrekin.

Pozik hartuko genuke entrenatzeko gogoia duen edonor! Informazio gehiago nahi izanez gero, jo Mañuetako udaletxera.





Ekainaren lehenengo astea gorri ilunez markatuta dago Nabaridaseko biztanleon egutegietan, aste horretan herri txiki honetako jaiak baitira. **San Juan de Ortegaren** omenezko jaiak aurten **maiatzaren 31tik ekainaren 2ra** bitartean ospatzen ditugu.

Egitaraua nahiko oparoa izan ohi da, baina bada egun bat goratzea merezi duena; egun hori **ostirala** da.

Zergatik ostirala? Gauza bitxia gertatu ohi da ostiral horretan, izan ere, herriko sotolariek beren upategietako aho sakon eta ilunak irekitzen dituzte, herria zurrakapotez bustitzeko asmoz. Liluragarria izaten da zer nolako giroa sortzen den kalean nahiz upategietako sabeletan. Adin muga guztiak apurtzen dira belaunaldi desberdinak gaindituta, musikaren doinu eta erritmoa lagun. Egund magikoa dela esango nuke... Sotolariek zurrakapotea prestatzeko egiten duten lana eskertzen du ondo pasatzera eta disfrutatzerara datorren orok. Horrelako egunek zein ekintzek herria batzen dute; komunitatea sortzen dute eta imaginarioan izan dezakegun herriaren ideia Nabaridaseko kaleetan lurreratzen da.

Horregatik, oraindik egoterik izan ez baduzue, egun polit hau bizitzeko gonbitea luzatzea besterik ez zaigu gelditzen Nabaridaseko biztanleoi.

Oiongo Bigarren Lasterketa Solidarioa



Pasa den urtean Oiongo lehenengo lasterketa solidarioa ospatu zen. Orduan lortutako dirua **ELA** gaixotasuna pairatzen duten elkar-teentzat izan zen. Ekainean, udaletxean sartu ginenean, bigarren lasterketa solidarioa prestatzen hasi behar genuen, eta horretarako zer erakunderi eman dirua ondo pentsatu behar genuen; egia esan, ez genuen pentsatzen denbora askorik eman beharrik izan, berehala adostu baikenuen **Duchenerri** emango geniola diru guztia.

Duchenne umeen giharretako distrofia bat da: gaixotasun arraroa, endekapenezkoa eta sendabiderik gabekoa. Munduan, 5.000 umetik bati eragiten dio (20.000 kasu berri urtero). 10-12 urte betetakoa, gurpil-aulkietan egon ohi dira umeok, eta 25-30 urte artekoa da bizi-itxaropena. Oso gaixotasun krudela da.

Duchenne Parent Project irabazi asmorik gabeko elkar-tea da, Duchenneren distrofia muskularra duten haurren gurasoek sortu eta zuzendua. Gaixotasunaren aurka borrokatzen dira, elkar-te batek egin dezakeen neurrian, ikerketaren, berrikuntza teknologikoen eta hezkuntza-proiektuen bidez; baina ez hori bakarrik, aldi berean, laguntza psikosoziala, informazioa eta orientazioa eskaintzen dituzte.

Oiongo lagun batzuen ilobari diagnostikatu zioten gaixotasuna orain dela urte batzuk, Kripango ume bati, hain zuzen, eta, orduetik, prestatzen dituzten ekintzetan parte hartzen saiatzen gara.

Aurtengo Oiongo lasterketa solidarioak lau modalitate izan ditu: kilometro bateko lasterketa txikia umeentzat, 5 kmko lasterketa helduentzat, helduentzako 10 kmko lasterketa eta ume zein helduentzako ibilaladia.


Modalitate guztiak irisgarriak izan dira. Ez da lan erraza izan, Oionen aldapak, espaloi altu asko eta hainbat oztopo baitaude. Hala ere, erronkari heldu genion, gurpildun aulkietan etorri behar ziren ume eta helduek disfrutatzeke aukera berbera izan zezaten.

Ttiki-ttaka 2024

Emaitza espero baino hobea izan da; izan ere, **300 pertsona** inguruk parte hartu zuten; enpresa askoren dirulaguntza jaso genuen, eta Duchenne familien arteko topaketa ere izan zen. Pilo bat lekutatik etorri zen jendea: Azpeitiatik, Logroñotik, Gasteiztik, Jacatik eta, nola ez, Arabako Errioxa osotik, batez ere, Kripandik; laguntza handia eskaini ziguten horiek.

Bisita guztiak dira garrantzitsuak, baina esker berezia eskaini nahi diogu Jacako Quique Gravalosi (Duchenne daukan Espainiako gizonik nagusia) eta **Miguel Silvaren** familiari; Miguel lasterketa ospatu baino bi egun lehenago zendu zen. Harentzako omenaldi bihurtu zen lasterketa.

Bukatu aurretik, eskerrak eman nahi dizkizuegu lasterketan parte hartu zenuten guztioi, prestatzen lagundu zigutenei, dirulaguntza eman diguten enpresei, lagundu diguten Arabako Errioxako bestelako herriei (Samaniego, Kripan eta Iekora) eta Oion herriari, jakina! Esker mila bihotzez! Ume horien senideek izugarri eskertu dituzte izan duten harrera eta lortutako guztia.



viana.....

Viana, Herria ala Hiria?



Eduardo Ayala Santibañez

Hasteko, argitu behar dugu Vianak lau mila biztanle baino gehiago dituela dagoeneko. Kopuru hori kontuan izanik, esan dezakegu herri bat dela, baina, egia esan, Espainiako **Felipe IV.** ak hiri titulua eman zion 1630ean.

Urtean zehar, Vianak bisitari ugari ditu: erromesak, udatiarrak, munduko edozein lekutatik iritsitako turistak; milaka lagun, guztira. Haietako askok jakingo ote dute Viana hiria dela? Seguruenik ez; baina ziurrenik erromesek eskuetan eramaten duten gida turistikoetan irakurtzeko aukera izango dute. Halaber, Foru plazara iristen direnean, Vianari buruzko hainbat informazio eta datu eskura ditzakete, turismo bulegoan, hain zuzen ere. Esanguratsua da bulego horretara urtean zortzi mila lagun baino gehiago sartzen direla, xehetasunak eskuratzeko asmoz; nolabait, horrek esan nahi du leku honek jendearen arreta pizten duela.

Beste batzuek, aldiz, gidarik ez dutenek, ez dakite zehatz-mehatz hiri-titulua duen ala ez, eta jabetzen direnean, aho bete hortz geratzen dira, hain txikia den herri honek hain handia den titulua izateagatik. Hala ere, aitortu behar dugu Vianarrok horri ez diogula garrantzi handirik ematen, mamia ez baita hori, baizik eta nola sentitzen garen, paraje honetan bizi izanik. Azken finean, guk geuk ere herria deitzen diogu, inolako konplexurik gabe.

Donejakue bidearen Nafarroako azkeneko herria izan arren, hau da, Iruñetik urrun-urrun, Lizarreria eskualdeko lekurik erosoena omen da bizitzeko, zenbait zerbitzu baitu. Horretaz gain, lasaitasunez bizi gara, mendiko herrixka batean bageunde bezala, isiltasuna sentitzeko. Bakeaz gozatzeko itzelezko aukera ematen du Vianak, bai egunez bai gauez, hainbat txokotan eta, jakina, **Las Cañas** urmaelera hurbilduz gero, sentituko duzue zer den lehen aipatutakoa. Gainera, hango behatokitik edozein mota hegaztiak ikusteko abagune aparta izango duzue.

Ttiki-ttaka 2024

Hala ere, hiria dela begi-bistan geratzen da, haren antzinako kaleetan zehar paseatzen garenean: harlanduzko noble etxeetako hainbat armarririk gure ibilbidea zaintzen dute, eta, begiak itxiz gero, ezpata zaharren hotsak ere entzungo ditugu, baita **Zesar Borgiaren** zaldiaren apatxen zarata ere, zaldunaren zoritxarreko patuaren bila *Sorkunde Garbia (La Solana)* portaletik aldentzen.

Dena den, leku zalapartatsuen eta parranda zalea bazarete, Vianan ekintza eta ekitaldi anitz ere aurkituko dituzue: inauteriak, jaiak, guztiontzako kirol-lasterketak, musika-emanaldiak, azokak, erraldoi-topaketa eta abar, eta abar. Zein herria zein hiria, Vianara hurbiltzeko hamaika arrazoi dituzue, harresi zaharren bost portaleak kanpotarrentzat beti irekita daude-eta!

Eduardo Ayala Santibañez



ARABAZOZO PIKARTAK (Las Cañas. Viana)

MALKAR-SORBELTZA



SORBELTZA



ENARA



zieko.....

Ardoa eta Musikaren Astea



Urtero bezala, uztailaren hirugarren astean, **ardoa eta musikaren astea** ospatuko dugu Ziekon. Aurtengo edizioa, 16garrena, **uztailaren 15etik 21era** izango da.

Astean zehar, ekintza desberdinak izango ditugu herriko zenbait tokitan: Elizako Plazan, San Roque baselizako zelaigunean, Plaza Nagusian, *La Encina* izeneko parkean... Beraz, egun horietan, musikak eta ardoak bat egingo dute hainbat ekintzen bidez, hala nola dantzak, gastronomia, dastaketa eta musika zuzenean.

Iaz geroztik, lehenengo dastaketa **dantza-kata** da **Laukale** dantza taldearen lankidetzaz; Ziekoko eta Arabako Errioxako dantza batzuek eta ardoak bat egingo dute. Aurten, **makil dantzak** egokitu dira, eta Arabako Errioxako ardo desberdinak dastatzeko aukera izango dugu, makil dantzak ikusten ditugun bitartean. Ekitaldiekin jarraitzeko, San Roqueren baselizan, Ziekon ekoizten diren ardo zuriak dastatuko ditugu, DJ batek girotuta. Gainera, jaki desberdinak eta ardoa uztartzeko parada ere izango dugu, Plaza Nagusian eta La Encina parkean egiten diren ekintzen bitartez.

Asteari amaiera bikaina emateko, **Cifujazz** jardunaldiak ditugu. Asteburuan zehar, jazza izango da protagonista **Juan Claudio Cifuentes** (Cifu) gure bizilagun ospetsuaren omenez. Plater nagusia, aizue, larunbateko kontzertua! Garrantzi handiko nazioarteko **jazzlari** bat ikusteko aukera izango dugu urtero bezala.



Ttiki-ttaka 2024



Ttiki-ttaka galdetza

Euskararekiko motibazioaz, ezagutzaz eta erabileraz asko hitz egin da betidanik. Aspaldiko urteetan, dena den, erabilera izan da hizpide, eta, hala, erabilera-planek eta erabilera-kanpainek hartu dute lehentasuna. Jakina da erabileran aurrera egingo bada, ezagutza ezinbestekoa dela eta baita ikasteko eta erabiltzeko motibazio ere, baina ahaztu ditzakegu euskararekiko sentsibilizazioa eta kontzientzia? Oraindik ere askotan entzuten ditugu honakoak: “Gure kuadrillan 10 gara: zortzik dakite euskaraz eta bik ez. Horregatik, denek ulertzearren eta inor ez baztertzearren, gaztelaniaz egiten dugu”. Edo zenbait irakasleri entzun diegu: “Euskara ikastetxeko ikasgaiak gainditzeko hizkuntza bihurtu da, eta ez ikasleen arteko komunikazio hizkuntza”, edo honako hau: “Titulua lortzea dute helburu euskaltegiko ikasle gehienek, baina ez euskaraz hitz egitea; eskoletan, maila altuetan ere, gaztelania baliatzen dute ikasleek euren arteko komunikazioan”

Euskararekiko kontzientzia-galera horrek fikziozko egoera bat asmatu eta kalera eraman gaitu inkesta bat egitera.

EGOERA

Pilates ikastaro baterako izen-ematea zabaldu zen Arabako Errioxako herri batean. Izen-ematean ez zen zehaztu erabiliko zen hizkuntzari buruzko irizpiderik. Adierazi zen bakarira irakasleak euskaraz eta gaztelaniaz egin zezakeela eta, behin izen-ematea amaituta, erabakiko zela zer hizkuntzatan egingo zen.

10 lagunek eman dute izena; horietako 8k euskaraz eskatu dute, eta bik, gaztelaniaz. Irakasleak euskaraz ematea proposatu du, eta euskaraz ez dakitenei gaztelaniaz egingo diela eta gainerako ikasle euskaldunek ere lagunduko dietela. Euskaraz ez dakitenek, ordea, ez dute onartu; gaztelaniaz jasotzeko eskubidea omen dute eta, gainera, hala eginda, euskaldunek gaztelaniaz ere badakitenez, ez duela inork ezer galduko; gaztelaniaz egin ezean, berriz, haiek ez dutela besteen mailan ikasiko diote.

GALDERAK

Zein hizkuntzatan egin beharko litzateke ikastaroa? Zergatik?

Erantzuna euskaraz bada, zer esango zenieke ez dakiten bi horiei?



Mikel eta Ibai

Gure ustez euskaraz egin beharko litzateke, ez dakitenek (bi izanda, eta besteak zortzi) ez dutelako beren hizkuntza inposatu behar.

Bizitzan beste kontu batzuetan gertatzen den bezala, guk nahi ez dugun zerbait nahi badu gehiengoak, hartara moldatu besterik ez dugu. Kasu honetan, gainera, euskaldunak erdaldunei laguntzeko prest daude.

Karla, Aitana eta Nerea

Gure ustez euskaraz egin beharko lirateke, Euskal Herrian gaudelako eta euskara garatzeko aukerak aprobetxatu behar direlako.

Gehienek euskaraz nahi dute, eta euskaraz ez dakiten horiek euskarara moldatu beharko lirateke, are gehiago jakinda laguntza izango dutela.





Miguel

Nire ustez, bi hizkuntzetan eman beharko litzateke; horrela, taldeko kide bat bera ere ez da baztertuta sentituko. Gainera, euskaraz ez dakitenek beren euskarazko hizkuntza-trebetasunak ikasi eta sustatu ahal izango dituzte.

Oier

Aspaldiko dilema honakoa. Hamaika aldiz aditutako kontua. Zein euskalduni ez zaio gertatu, talde euskaldun batean bilduta dagoela, erdaldun bat bertan egoteagatik hizkuntza aldatu beharra? Are gehiago, askotan "errespetuaren mesedetan" egin beharreko hizkuntza aldaketa. Baina noizbait hausnartuko ote dugu "errespetu" deitzen dugun horren izaeraren inguruan?

Erantzuna, sinplea: ikastaroa euskaraz egin beharko litzateke. Kopuru kontua da, bi hizkuntza, hamar ikasle, gehiengo zabal eta euskaldun bat, eta askotan ahanzten dugun elementua: *elebitasuna*. Euskaldun guztiok elebidunak izaki, arazorik ez erdaldunek beharrezko azalpenak eskuratzeko.

Erdaldunei emango niekeen erantzunari buruz galdetzen badidazue, ondokoa galdetuko nieke: *zeintzuk dira ikastaroa euskaraz egitearen abantailak eta desabantailak?*

Abantailak agerikoak. Euskararekiko hurbilketa. Giro euskaldun bat gertutik ezagutzeko aukera. Baliteke euskarari buruzko ikuspegi aldaketa bat ere ekartzea.

Desabantailarik? Elebitasuna kontuan hartzen badugu, azalpenak ulertzeko zailtasunak nekez izango dituzte. Taldean integratzeko zailtasunik? Esperientziak kontrakoa erakutsi dit, hau da, ez dut uste beste edozein taldetan integratzeko baino zailtasun handiagorik dagoenik, elkarbizitza arrunt bat badago. Errespetu faltarik? Errespetu bezala zer ulertzen dugun; nire kasuan, ezin hizkuntzak ez dakar, izate soilez, errespetu faltarik.



David

Kopuruez harago, aitzakia ona iruditzen zait gure eskualdean berriro bistartzeko euskararen sustapenaren kontua. Euskara zabaltzea benetan administrazioaren helburu bat al da Arabar Errioxan? Hala balitz, helburua lortzeko neurriak jarri beharko liriateke, eta nire iritziz, gutxienez hitzunen proportzioak mantendu eskaintzen diren zerbitzu guztietan. Hau da, gure gizartean % 25 inguru euskaldunak bagara, euskaraz egiten diren ikastaroetan ehuneko hori errespetatu beharko litzateke, nahiz eta euskaldun kopurua gutxiengoa izan.



Ekaitz eta Xabi

Euskaraz egin beharko litzateke, Euskal Herrian euskara hizkuntza gutxitua delako eta gure hizkuntza garatzeko aukerak aprobetxatu behar direlako. Era horretan, gainera, ez dakitenak *belarri prest* bihurtuko dira, eta hizkuntza eta euskaldunak ulertzen ikasiko dute poliki-poliki. Erdaldunei esango genieke ez galtzeko euskarara hurbiltzeko aukera.

María

Alde batetik, ikastaroa euskaraz emateko proposamena, gaztelaniara itzulita menderatzen ez dutenez, urrats ausarta iruditzen zait gure hizkuntza biziberritzeko bidean. Gure nortasunarekiko, gure historiarekiko eta gure etorkizunarekiko konpromiso-keinu bat da.

Ulertzekoa da parte-hartzaile batzuek jarraibideak gaztelaniaz jasotzea nahiago dutela adierazi izana. Baina funtsezkoa da ulertzea euskara ez dela soilik komunikabide bat, baizik eta gure herentzia kulturalaren sinbolo bat eta gure komunitatea lotzen duen lokarri bat. Nahikoa sufritu duen hizkuntza honek zaintza behar du momentu oro.

Aldaketarekiko erresistentzia ulergarria izan arren, garrantzitsua da gogoratzea hizkuntza-aniztasuna babestu beharreko altxorra dela. Oraindik euskara menperatzen ez dutenek ulertu behar dute hizkuntza berri bat ikastea, kulturalki aberasteko eta gure nortasunaren funtsezko zati batekin konektatzeko aukera bat dela.

Bultza dezagun elkarriketa, elkar ulertzea eta elkarrekiko errespetua. Aldaketa, galera gisa ikusi beharrean, besarkatu dezagun komunitate gisa elkarrekin hazteko aukera.

Gogora dezagun euskara hizkuntza hitzak baino askoz gehiago dela; gure komunitatearen taupada da, gure arbasoen oihartzuna eta etorkizun bizi eta askotarikoaren itzaropena.

Jarrai dezagun bere biziraupenaren alde borrokatzen, euskararen iraupenean gure arima gordetzen dugulako.



Iker

Euskal Herrian gauden momentutik euskara hizkuntza ofiziala da gaztelania bezala, batzuei ahaztu egiten zaiela dirudien arren. Irakasleak gainera aukera eman du eta gehiengoak euskara aukeratu du eta ez dakitenei laguntza eskaini die bai irakasleak, baita ikasleek ere. Hori jakinda, nik ez daukat dudarik, eta eman ditudan arrazoiak erabiliko nituzke ikastaroa EUSKARAZ izango dela esateko. Hala ere, nik honen guztiaren atzean, euskarafobia duten bi pertsona ikusten ditut argi eta garbi.





Oscar

Lehenik testuingurua aztertu behar genuke. Aldez aurretik ikastaroaren baldintzak argitaratu ziren eta izena eman zuten bizilagun guztiek bazekiten hizkuntza izen-ematearen ondoren zehaztuko zela, eta, nahiz eta parte hartzaile gehienek euskaraz egitea erabaki, bai irakasleak, bai ikaskide euskaldunek gaztelania aukeratu dutenei gaztelaniaz egingo leketela esan dute.

Horrenbestez, argi dago euskaldunak erdaldunei laguntzeko prest daudela. Hemen dago egoera korapilotsu hau konponduko duen gakoa.

Erdaldunei esango nieke Pilates ikastaroa ekintza inklusiboa dela, non euskaldunak eta erdaldunak elkartzen diren. Aintzat hartu behar dela herrietan ez dela ohikoa horrelako ekintzak abiatzea, eta, horregatik, aukera ezin hobea izango dutela haien herriko bizilagun euskaldunak hobetu ezagutzeko. Geroz eta gehiago entzuten den euskarara belarria egiteko primerako ariketa izango dela; eta nork daki? Baliteke euskararen grina sortzea bere baitan. Hala ere, ariketa egitea soilik bilatzen badute ez direla atzean geratuko, irakaslea prest baitago haien erdaraz egiteko.

Emaitza hauek ikusita, gizartearen ikuspegi orokorra ematen duten ala ez ziurtatzerik ez badugu ere, argi geratu da badagoela oraindik euskara kontzientzia eta euskaldunen eskubideak defendatu behar diren ikuspegia. Eskerrak!

Hala ere, Gasteizen euskaltegiak eginiko ikerketa batean ondorioztatu zuten helduei eskaintzen zaizkien aisialdi-ikastaroen % 95ean parte hartzeko ez dagoela euskaraz jakin beharrik: batetik, askoz gutxiago eskaintzen direlako, eta, bestetik, euskaraz eskaini arren, ez dakien batek izena emanaz gero, gaztelaniaz egiten direlako; beste askotan, eskaerak bi hizkuntzatan direnean, “bietara” egitea erabakitzen da, baina praktikan halakoak gaztelaniaz izaten dira.

Euskaltegiak noizean behin egin ohi dituen txangoetako batean, Gesaltza-Añanako gatzagak bisitatzea aukeratu zen, euskaraz ere eskaintzen zirelako bisita gidatuak. Hitzordua hartu, euskaraz eskatu, eta hara iritsitakoan, bisita hastear zela, laukote bat etorri zen. Haiei ere ordu huraxe zetorkiela ondo zioten, eta ea euskaltegiak aldez aurretik hartutako bisita hartan egon zitezkeen; horraino arazorik ez. Baina beste kontu bat ere eskatu zuten: euskaraz ez zekitela eta gaztelaniaz egitea ea inporta zitzaien euskaltegikoei, horrela eginda denek berdin ulertuko baitzuten bisita. Ezetz esan zitzaientzen, jakina: euskara ikasten ari zen jendea zela eta bisita euskaraz egitea hizkuntza praktikatzeko bidea zela. Ez zuten begi onez ikusi euskaltegikoei esana, eta diskriminazioa zela zioten; laukoteak, hala ere, euskaltegikoekin batera egin zuen bisita, baina aurpegi txarra jarrita hasieran, eta jarrera txarrarekin bisitak aurrera egin ahala. Jarrera txarrak gain, instalazioa bera ere kaltetzen ari ziren amaierarako, eta gidariak alde egiteko eskatu zien. Erabat haserre alde egin zuten, erabat *diskriminatuta*.

Inketa egiteko fikziozko egoera batetik abiatu bagara ere, euskarak erdaldunei eragiten dien ezintasunaren aurrean (haien hitzetan diskriminazioaren aurrean) sortutako kanpainak fikziotik gutxi dute, eta edozein une eta egoera aprobeztatzen dira diskriminazio faltsu hori lau haizetara hedatzeko. Argi dago, ordea, oraindik, Euskal Herrian euskaraz egin daitezkeen ekintzak gutxi direla gaztelaniaz egin daitezkeen aldean eta, hortaz, euskaraz normaltasunez aritzeko eskubidea ez dagoela bermatua. Asko dugu egiteko, beraz. Edo, adibidez, Euskal Herriko Bertso Txapelketaren finalean, eskatu behar litzaike bertsoari gaztelaniaz egiteko?

Arabako Dantzari Eguneko beste edizio bat ospatu genuen martxoaren 23an Lapueblan. Oso pozik egon ginen egun hartan Arabako Errioxako dantzari guztiok. Zoritxarrez, lekorako dantzariak berriz ere ez zuten gurekin egoterik izan, baina hurrengo hitzorduan egotea espero dugu, benetan.

Pandemiari aurre egin genion, baina lagun asko “galdu” ziren bidean: hainbat dantza taldek kide batzuk galdu edo nekatu, gogorik gabe beste zenbait, baina, hala ere, harro esan behar dugu hemen garelaz bezala, eta ez dela talde bakar bat ere atzean geratu. Lorpen handia, alajaina, lan gogorraren ondorioz.

Tira, oso pozik gaude, aurtengoan Lapueblan ospatu baita. Dantza tradizionalik ez duen herri batek ospatzea goraiatzekoa da. Lehengo aldia da Lapueblan ospatzen dena, eta horixe oso berri ona da.

Arabako Errioxako Dantzari Eguna 2014an hasi zen (10 urte jada). Garai hartan zazpi dantza talde baino ez ziren. Dantzari eta lagun batzuk bildu ginen eguna diseinatzeko, eta zozketa bidez **Lantziego** izan zen ospatzen lehena.

Zazpi urte eta pandemia ezker, dantza talde berriak sortu dira, herri txikietan geihenak. Hasiera batean bertako dantzariak ez, baina egundoko gogoekin jardun dute. Herriok **Lapuebla, Bilar** eta **Nabaridas** izan dira. **Milesker egindako ahaleginarengatik!**

Aipatu bezala, aurten, estreinakoz Lapueblak hartu du antolatzearen ardura, eta oso bikain egin ere. **Zorionak Lapuebla!** Datorren urtean Bilarrera abiatuko gara, eta talde berririk sortuko ez balitz **2026an Nabaridas** herriak itxiko du zikloa, hasi ginen herrian berriz hasteko, Lantziegon, alegia.

Harrotasun eta pozez beterik esan nahi dugu Arabako Errioxako Dantzari Eguna sustatzea lortu dugula, etorkizun oparoa izango delakoan.



Euskararen aldeko apustua gero eta handiago da Arabako Errioxan. Gure hizkuntza eta kultura babesteko prest al zaude? Eman pausoa gurekin! Dagoeneko **D ereduko eskaintza** erabatekoa da gure kuadrillan, eta hezkuntza euskaldunaren alde egiten dute itunpeko zein publikoko eskola guztiek. Izan ere, euskara ez da inorena, eta aldi berean guztiona da.

Oraingoan datorren **ekainaren 1ean**, Laguardian, **AEEPEk** (Arabako Errioxako Eskola

Publikoak Euskaraz) jai erraldoia antolatu du euskara maite duen ororentzat.

Eskolak dira herrietako bihotza, eta, horregatik, gure kuadrillako ikastetxeak indartsu, sasoiko eta batuta mantentzea funtsezkoa da. Anima zaitetze etortzera; era guztietako ekintzak aurkituko dituzue bertan.

Egitarau goxoa prestatu du AEEPEk egun honetarako, gustu eta adin-tarte guztientzat. Egund osoan zehar musika izango da nagusi Laguardiako kaleetan zehar.

Ez da bazkaltzeko arazorik izango, izan ere, antolatzaileek hainbat tabernarekin hitz egin dute aukera desberdinak izateko.

11:00etan pregoiarekin hasi, eta hortik aurrera ez da geldiunerik egongo: musika kontzertuak, haurrei zuzendutako jarduerak, herri kirolak, ipuin kontalaria...

Euskara ardatz duten ekimen ugari bakarka zein familiarekin gozatzeko.

Jai honen lehen edizioa da, baina oso indartsu hasi da kuadrillako eskola publiko guztiek osatzen duten antolatzaile-taldea. Izan ere, beraien tokia aldarrikatzeko beharra sentitu eta adierazten dute. Eskola publiko eta euskaldun baten alde egiteko une eta gune bilakatu dute AEEPE jaiak.

Bertaratu baino beste aukerarik ez dago. Zatozte eta parte hartu, zuen hizkuntzarekin eta kulturarekin bat egiteko. Zuen ahotsa ere garrantzitsua da!

Arabako Errioxa euskaldun baten alde egin dezagun!

Oharra: Ttiki-ttaka aldizkaria **EKA eguna** ospatu ondoren eraman ohi da inprentara, beraz, Eskola Publikoaren Jaian egondakoak izango zineten honezkero, eta seguru ongi pasatu ere bai. Hurrengo alean honetaz eta hartaz jardungo dugulakoan, agur t'erd!'



Paulo Freire HHI, Helduen Hezkuntza Arabako Errioxan

Batzuentzat agian ezezaguna, beste askorentzat, aldiz, ezinbestekoa, Arabako Errioxan helduen eskola errealitate bat da. Eskola Gasteizko erdigunean kokatuta badago ere, Araba osoan zehar ematen ditugu klaseak, eta zonalde horietako bat Arabako Errioxa da.

Egoitza fisikorik edota finkorik ez badugu ere, Oiongo Ramiro de Maeztu eskola publikoan dugu gure lekua. Eskolak eta Udalak utzitako zenbait gelatan, 16 urtetik gorakoentzako hainbat ikasgai eskaintzen ditugu.

Eskualdeak dituen berezitasunak aintzat hartuta, gure ikasleriaren gehiengoa etorkina da, eta **Kanpotarrentzako Gaztelania** ikasgaia ematen dugu maila ezberdinetan, etorri berri direnei integrazioan laguntzeko. Berebiziko garrantzia duen ikasgaia da, askorentzat zonaldearekin eta hizkuntzarekin lehen kontaktua baita, eta lan handia egiten da arlo horretan.

Horrez gain, helduentzat DBH ikasketak ateratzeko aukera ematen dugu, nahiz eta azterketak egiteko ikasleak Gasteiza joan behar diren. Horrek urtean zehar Gasteiza joan-etorrian ibili gabe, ikasketak Arabako Errioxan egiteko aukera ematen die ikasleei.

Aipatu bezala, gure abiapuntua Oionen izan arren, Arabako Errioxako herri gehiagotan ere ematen ditugu eskolak. Momentu honetan, hain zuzen ere, Lantziegon, Bastidan eta Lauardian ere egiten dugu lan.

Testu honen helburua gure eskola ezagutaraztea eta gurekin ikasi nahi duen edonori gu ezagutzera etortzeko gonbita luzatzea da. Era berean, Euskal Herriko eskualde honen alde lan egin eta euskara, euskal kultura eta gure ohiturei bere lekua ematea dugu helburu.

Inoiz ez da berandu ikasten hasteko, ezta gauza berriak ikasteko ere; beraz, ez lotsatu eta **animatu gurekin ikastera!**





2024an, bai, pasatu da **KORRIKA** gure eskualdetik. Espero genuen; izan ere, **AEKk** duela urte batzuk konpromiso hori hartu zuen Arabako Errioxarekin; alegia, bi edizioan behin pasatuko zela.

2022ko edizioan, ofiziala pasatu ez zenez, eskualdeak bere Korrika antolatu zuen hirugarren aldiz: **Vianako eta Arabako Errioxako Korrika**. Aurreko bietan ez bezala, Korrika ofizialaren babesarekin antolatu genuen. Arrazoiak honako hauek ziren labur azalduta: gure eskualdea istilu-sortzaile ez agertzea euskara bultzatzeko ekimen batean eta antolaketa ofizialak Korrika edizio guztietan hemendik igarotzea onartzea. Ekimenetik lortutako dirua bertako helduen euskalduntzera bideratu zen, ikasleen matrikulak igo gabe mantentzera hain zuzen.

Urte hartan, lortutako dirua bertan geratzeak ez zuen iskanbilarik eragin. Aurreko edizio ofizialean, ordea, 2019koan, eskualdean Korrika bultzatu zutenek lasterketatik ateratako dirua erdibana egitea erabaki zuten, hau da, erdia AEKri eman eta erdia bertako euskaltegiari. Horrek, bai, erabaki eta jokaera horrek hautsak harrotu zituen AEKn.



Ttiki-ttaka 2024

Korrika, aldizkari hau irakurtzen duzuenok jakingo duzuen arren, helduen euskalduntzearen festa da, eta ekimenetik lortzen den dirua horretarako bideratzen da, AEKko euskaltegiarako, hain zuzen. Gure eskualdean helduen euskalduntzea bada, baina ez du AEKk koordinatzen, **IKAk** baizik. Hori dela eta, hemendik Korrikaren antolaketa ofizialari eskatu zitzaion, edizio guztietan eskualdea zapaltzeaz gain, ateratako diruaren zati bat bertako euskalduntzerako gelditzea; izan ere, hala izanda, antolaketa-lana gusturago egingo zen, eta, gainera, dirua lortzea errazagoa da bertan inbertituko dela jakinda.

2019ko Korrikaren balorazio-bileran, argi azaldu zitzaigun Vianako eta Arabako Errioxako antolatzaileoi AEKk ez zuela onartzen dirua partekatzerik eta ezin zutela ziurtatu lau urtean behin (bi urtean behin ospatzen da Korrika) baino gehiagotan pasatuko zenik hemendik.

2023ko urriaren 26an, Korrikako antolaketa ofizialak **Ttiki-ttakarekin** eginiko bileran 2024ko Korrikaz hartutako erabakiak jakinarazi zituen:

1. *2024ko Korrika pasatuko da gure eskualdetik.*
2. *Korrikaren izenean eskuratutako baliabide ekonomikoen osotasuna AEKra bideratuko da. Erabakia nazio mailakoa da, eta, beraz, EHko gainerako herrietan eta eskualdeetan bezala arituko gara Arabako Errioxan. Orain, ikusteko dago Arabako Errioxako euskalgintzak zer dioen.*
3. *Korrikaren olatuaren pean, Arabako Errioxako euskalgintzak baliabide ekonomikoak eskuratzeko dinamikak sor ditzake. Betiere, dirua norik eskatzen duen argi utzita. Hau da, KORRIKAREN izenean eskatutakoa AEKrentzat, eta Arabako Errioxako euskalgintzaren izenean eskatutakoa Ttiki-ttaka, IKA edo beste elkarte batentzat.*
4. *Korrika edizio guztietan Arabako Errioxatik igarotzeko aukera aztertuko da, orain arte egin den bezala. Argi izan behar dugu ibilbidea nazio mailakoa dela, eta eskualde batetik igarotzeak beste batetik ez igarotzea ekar dezakeela. Araban erronka handia da Mendialdetik eta Arabako Errioxatik edizio berean igarotzea. Hala ere, hasiera eta bukaera tokien arabera, aukera egon liteke.*

Iritsi zen Vianako eta Arabako Errioxako herrietako euskaltzale eta Korrika antolatzeko prest zeudenen bilera, eta Ttiki-ttakak aurretik adierazitako lau puntu horiek jarri zituen mahai gainean.

Ez zen erraza izan nola jokatu erabakitzea. Zenbaitek diru guztia AEKrentzat izan behar zela ikusten zuten, Korrika hemendik pasatu eta hortik ateratako dirua bertako helduen euskalduntzerako baliatzea lagun baten jatetxera joan eta belearna egitea (ordaindu gabe alde egitea, alegia) baitzen; beste zenbaiti, aldiz, egokiago iruditzen zitzaion lortutako diruaren zati bat bertako helduen euskalduntzean inbertitzea, hau da, aurreko analogiari erantzunez, lagunari jatetxea egun baterako eskatu, lan guztia egin, eta ateratako dirua lagunarekin erdibana egitea zela bidezkoena.

Azkenik, aurrera egin nahian, bertako euskaltegiak zera jakinarazi zuen bileran: batetik, oraindik ere euskaltegien normalizazio ekonomikorako asko falta bada ere eta ikasleei matrikulak merkatzeko bideak garrantzitsuak izanik ere, garai batetik hona egoera asko hobetuta zegoela diruari dagokionez; bestetik, Korrikaren ekarpena ez dela dirua bakarrik, hizkuntzaren gaineko kontzientzia pizteko eta suspertzeko balio duela eta herritarrei euskararekin lotutako esperientzia berezi bat eskaintzen diela; eta, azkenik, AEKk helduen euskalduntzean egiten duen lana garrantzitsua dela oso eta ez dagoela lehiaketarik

Tfiki-ffaka 2024

euskaltegien artean, hots, Arabako Errioxako IKAk behintzat asko baloratzen duela AEKK Euskal Herri osoan egiten duen lana.

Horrela bada, bertako euskaltegiaren hitzak aintzat hartuta, AEKtik etorritako proposamena bere horretan onartu zen, eta 2024ko Korrika (23. Korrika) antolatzeari ekin zitzaion.

Eta antolatu zen, eta Korrika pasatu zen. **Martxoaren 18an**, goizeko 7:00ak aldera sartu zen Arabako Errioxan, **Meanotik** Kripanerantz. **Kripan**, **Bilar** eta **Biasteri** gurutzatu eta **Urizaharrara** iristear, 10:30ak aldera, utzi zion gure eskualdeak lasterketari.

Eskualdeko hiru herritatik pasatu bazen ere, lasterka ez zuten hiru herri horietakoek soilik egin, baizik eta Vianako eta Arabako Errioxako herri guztiek izan zuten kilometro bat edo gehiago Korrikak hemen egin zituen **32 kilometroetan**.

Bestelako ekintzak ere izan zituen Korrikak gure herrietan; esaterako, Oiongo zinean **Belarri prest bakarrizketa** eta Biasterin **Korrika festa**.

Idazten ari den honek, hala ere, beste edizio batzuetan baino giro apalagoa nabaritu zuen aurtengo Korrikan. Ziurrenez, egunak (astelehena) eta orduak (goizeko zazprietatik hamarretara) eragin handia izan zuten, baina baita AEKtik etorritako erabaki itxiak ere. Dena dela, edizio honetan ere esperientzia eta irudi ahaztezinak utzi dizkigu Korrikak eskualdeko euskaltzaleoi.



Gora Viana eta Arabako Errioxa euskaldunak!



Nolakoak gara euskaldunak? Zer irudi proiektatzen dugu? Eta euskarak? Estereotipoengatik gidatzen bagara, esan genezake, adibidez, abertzaleak, aldarrikatzaileak, borrokalariak, esploratzaileak eta, maiz, folklorikoak ere bagarela euskaldunok. Askorentzako, gustuko adjektiboak dira horiek. Bertan goxo: geure burua islatuta ikusten dugu hor, geure identitatea.

Era berean, baina, euskararentzako etorkizun oparo(ago)a nahi genuke, eta gizartea euskarara hurbilaraziz bakarrik lor dezakegu hori. Hizkuntzak erakargarria, irisgarria behar du izan, eta, horretarako, euskal identitate anitzak egotea ezinbestekoa dugu, denentzako eredu erakargarriak. Alegia, euskaldunak izateko moldeak ugaritu behar ditugu, euskalduna izatea “*basko*” gutxi batzuen afera izan ez dadin.

Zeren Euskal Herrian bizi garen guztiok ez baititugu gustu, ohitura, bizimodu eta ideologia berdinak, baina euskalduntasuna –halakorik bada- iruditeria jakin batekin lotzen dugu: larunbatetako poteak kuadrillan eta igandeetako mendi buelta, ikurriña (edo nafar bandera), aldarrikapenak, erromeriak, bertsolaritza, esku pilota, bazkalosteko patxaranak, kaletik paseatzen ditugun *trekking* zapatillak... Topikoak, akaso, baina marko bat osatzen dute, eta bere burua bertan batere ikusten ez duen oro nekez senti daiteke euskarara erakarrita.

Geroz eta anitzagoa den gizarte honetan, izaera guztiei eman behar diegu kabida euskararen. Eta honakoa ez da –bakarrik– posizionamendu ideologikoa, estrategikoa baizik, gure hizkuntzak biziraungo badu ezinbestean hartuko duguna, berandu baino lehen. Gakoetako bat, beraz, dibertsitatearen kultura sortzea eta bultzatzea dateke, joera berdintzaileetatik ihesi. Ikuspegi inklusiboagoen premia dugu, identitate ezberdinen osagarritasuna ere aitortuz, euskararekin lotzen dugunak ez dezan bestelako identitateen galera ekar. Laburbilduz, konfort eremutik ateratzea dagokigu, eta horretarako etxeko lan dezente ditugu.

Hasteko eta behin, hizkuntza komunitate bezala sortzen edo sustatzen ditugun erreferenteei erreparatzeari garrantzitsua irizten diot. Egungoak alboratu gabe –ez dugu zertan-, profil ezberdinetako euskal erreferenteen beharra dugu: jatorri, kultura, kontrakultura, testuinguru, adin, gaitasun funtzional, genero identitate, sexu orientazio, euskara gaitasun, ogibide, afizio, pentsamolde eta abar ezberdinetakoak.

Kulturak ere, bere izaera aldarrikatzailetik, ekarpen handia du egiteko. Bizi den errealitatea islatzeaz harago, amesten dena ere irudikatu dezake, horren alde eginez. Zentzu horretan, euskaldunak izateko eredu ezberdinak sortu, ikusarazi eta sozializatzeko gaitasuna du.

Halaber, ezin da aipatu gabe utzi komunikabideek euskararen irudi berrituan jokatu duten funtsezko rola. Daukaten irismenagatik, jendearengan eragiteko eta ikuspuntu ezberdinak hedatzeko duten ahalmenagatik. Ukaezina da, oro har, mundua ikusteko dugun moduan hedabideek duten inpaktua.

Hori guztia, ordea, euskal komunitatearen kontzientzia hartzetik baino ezin liteke abiatu. Aniztasuna gaur egun aise darabilgun hitza da, baina benetan borondate handia eskatzen duena, paperean polit gelditzen den arren, ez baita erraza praktikan jartzea. Esan bezala, gure konfort eremuaren abandonua eta hainbat kontzesio eskatuko dizkigu, baina benetan sinestuta nago mereziko duela. Euskarak merezi du.



Horrela, mugagabea, dugu 2024ko *Araba Euskaraz* leloa. Mugarik gabe eta mugaezin irudikatzen dugulako gure hizkuntza.

Mugarik gabe, ez bada ortzi-muga, mugarriz mugarri, euskararentzako espazio zabalagoak irekiz. Mugarik gabe, euskaraz hezi eta hazi nahi duten guztientzat.

Hegomendebaldeko bazterretik ari gara, bazter-herritik, euskarazko hatsa igorri erdigunera. Baina erdigunean ere bagaude, eta indar zentripetua eragiten dugu, nafarrak eta errioxarrak, baita etorri berriak ere erakarri gurera.

Gure gogoa, borondatea eta grina ere mugaezinak dira.

Ikastola guztiok batera, guztiok batuta. **Arabako zortzi ikastolak elkarrekin ari gara aurten ere** Araba Euskaraz antolatzen. Azken bi ekitaldietan martxan jarri dugun ereduari jarraipena emango diogu, auzolana eta elkarlana ardatz hartuta, eskuz esku, buruz buru, gure jakintza elkarbanatuz, gure harremana aberastuz. Eta azken bi urteotan bezala, **Olarizun ospatuko dugu, Araba Euskaraz, 2024ko ekainaren 16an.**

Araba Euskaraz gure lurraldeko bazter guztietara eramaten ari gara aurten ere, urtean zehar antolatu ditugun ekimenen bitartez.

Ikastola guztion artean egiten dugun auzolan honi esker, ikastolen proiektuak ezagutarazi eta bultzatu nahi ditugu. Baina, era berean, **euskarari eta euskal kulturari agertoki handi bat eskaintzen diegu.** Ikastolek bezalaxe, euskarak behar duelako Araba Euskaraz bozgorailua; euskal kulturak behar duelako Araba Euskaraz agertokia; eta arabarrok ere behar dugulako Araba Euskaraz topagunea.

Guztion lana, guztion konpromisoa, ikastolen mugimenduarekiko, Arabarekiko, euskararekiko eta euskal kulturarekiko. Guztion lana eta esfortzua, ikastolen proiektuak aurrera ateratzeko. Urte honetako Araba Euskaraz antolaketarekin **Oiongo San Bizente ikastola** lagundu nahi dugu. San Bizente ikastolaren hezkuntza proiektua ezagutzera ematearekin batera, Oionen eta Arabar Errioxan euskararen erabilpena aldarrikatzeko eta bultzatzeko, eta erabilpen eremuak zabaltzeko baliatuko dugu gure jaia.

1976. urtean sortua, ia mende erdi bat ari da San Bizente ikastola Oionen errotuta lanean. 0-16 urte bitarteko ikasleak hartzen ditu, eta uneotan 201 familiak, 288 ikasleak, 34 irakasle eta

Tfiki-ffaka 2024

langilek osatutako komunitatea da ikastolarena. Funtsezko bi oinarrik ematen diote San Bizente Ikastolari berezko nortasuna. Alde batetik, Kooperatiba da, gurasoek antolatua, beren seme-alabei hezkuntza euskaldun eta kalitatezkoa eskaintzeko, kudeaketa demokratiko eta garden baten bitartez. Bestetik, kalitatezko zerbitzua eskaintzea da ikastolaren xedea. Bi ezaugarri horiek ematen diote San Bizente Ikastolari bere berezko nortasuna: ikastetxe euskalduna, integratzailea, akonfesionala, hezkidetzagilea da, eta metodologia parte-hartzailea eta kudeaketa irekia eskaintzen dituena Oiongo eta inguruko familia guztientzat. Izan ere, inguruko herrietatik ere jasotzen ditu ikasleak, bai eta Errioxara bizitzera joandako zenbait familiaren seme-alabak eta zenbait ikasle nafar ere.

San Bizente ikastolak harreman estua dauka Arabako beste zazpi ikastolekin, baina berezki, Arabar Errioxako beste bi ikastolekin, Bastida eta Assarekin. Hiruren artean lortu dute lau-bost hamarkadatan eskualde honetan euskaldun eta ia euskaldunak %4 izatetik, %40tik gora izatea.

Arabar Errioxan Ikastolak euskararen alde egiten duguna argia da: Arabar Errioxako neska mutikoak euskalduntzen ditugu, eta, horiekin batera, baita hainbat nafar, errioxar eta urrunagotik etorri berriak ere. Arabar Errioxan euskararen erabilpena aldarrikatzea eta bultzatzea, eta erabilpen eremuak zabaltzea ere bada gure xedeetako bat. Eta, noski, Ikastola proiektuari jarraipena emateko finantzazioa lortzea.

Arabar Errioxa euskalduntzen jarraituko dugu!





Pare bat urte baziren **Joseba Sarrionandiaren** eta **Ines Osinagaren** emanaldiaren berri genuela Ttiki-ttakan. Hasieratik begi onez ikusi genuen Arabako Errioxara emanaldia ekartzea, baina ez zen erraza: garai hartan, euskararen arnagune jotzen diren herri horiek ari ziren ekitaldiaren eskean, batetik, eta, bestetik, herri haietako udalek jartzen zuten dirua emanaldia antolatzeko. *Katuen Kontuak* egin zuten Azpeitian, Ondarroan... euskal hiriburuetan... eta guztietan ere lekuak bete-beteak. Iritsi zitzaizen txanda Bartzelonari, Kubari... Eta guzti-guztietan jendea ezin gusturago. Eta hemen?

Gurera ekartzea zaila izateko arrazoietako bat dirua zen. Ez dugu esango emanaldia garestia zenik, baina bai diru asko balio zuena Ttiki-ttakarentzat. Ekitaldia antolatzeko ere ezin zen haiekin zuzenean hitz egin; izan ere, bazuten manager edo antzeko funtzioa zuen laguntzailea. Dena, ordea, ez da dirua, eta Joseba, Ines eta managerra ere euskaltzaleak direla kontuan izanik, idatzi egin genien, eta bertan azaldu guretzat zergatik zen garrantzitsua emanaldia Arabako Errioxan antolatzea. Honako hau duzue idatzitakoa:

Ttiki-ttaka elkarteak duela 30 urte pasa sortu genuen taldea da. Onomatopeia horrekin piliki-poliki baina euskara aurrera zihola adierazi nahi genuen, ume baten pauso txikiak eta aldi berean ilusioz beteak. Talde asko sortu eta desagertu egiten dira, batez ere gu bezalakoak, hau da, borondatez aritzen den jendeak osatutakoak. Hainbeste urte irautearen arrazoia pauso txiki horietan dago; izan ere, Ttiki-ttakak bere buruari erronka txikiak jartzen dizkio, lanaren zurrunbiloan inor ez erretzeko tamainakoak. Horrek ez du esan nahi, hala ere, helburu eta desio handiak ez ditugunik, baina argi izan dugu beti gustura egin behar dela lana, ezer lortuko bada.

Duela 32 urte elkartu ginenean, gure helburua Arabako Errioxako euskaldunok elkar ezagutu, elkarrekin zenbait ekintza egin eta, horrela, euskaldunen arteko sarea osatzea zen. Hala ere, garbi izan dugu beti sare horrek aurrera egingo badu, euskaldun gehiago behar ditugula, haiei euskaraz jarduteko moduko maila lortzen lagundu behar zaiela, eta, gure ustez, aipatutako bi helburuetarako ezinbestekoa da euskal kultura ezagutaraztea, kulturak erakarriko baititu erdaldunak euskarara, kulturak motibatuko gaitu euskaraz aritzera eta kulturaren aitzakian elkartuko gara euskaldunak.

Illo horretan sartzen da Ines Osinaga eta Joseba Sarrionandia gurera ekarri nahia. Kultura oso zabala da, eta denek, kultura izan arren, ez dute berdin erakartzen, dela kalitateagatik dela ezagunago edo ezezagunago izateagatik. Arabako Errioxan ere nork ez du entzun Joseba Sarrionandiaren berri? Zenbat eta zenbat jendek ikasi eta hobetu ote du euskara-maila haren testuekin? Makina bat jendek gozatu du Josebaren liburu, olerki eta kantekin! Eta hitz horiek jendearengana iristeko ba al da musika baino bitarteko internazionalagorik? Ines Osinaga jende gutxiagok ezagutuko du, baina musika-nota bakar bat nahikoa da ulertzeko Inesen ahotsa eta musika baino bitarteko iradokitzaileagoa eta hobea aurkitzea zaila izango dela.

30 urte hauetan ekintza eta emanaldi asko egin eta antolatu ditu elkarteak, baina Ines Osinagaren eta Joseba Sarrionandiaren emanaldiak ilusio berezia egiten digu”.

Eta haiei ere bai! Ilusioa egiten zien Arabako Errioxara etortzeak. Euskarak irauteko bultzada handiagoa behar duen lekuetara hurbiltzea gustuko zutelaren zioten eta sustatze-lan horretan lagun bazezaketen are gehiago.

Ttiki-ttakak 2024

Diruarena ez zela oztopo ere argi utzi ziguten. Ttiki-ttakak, hala ere, gutxienekoa behintzat ordaindu nahi zien, eta, horretan, Oiongo Udalaren laguntza aurkitu genuen. Hark hartu zuen dirua jartzearen ardura nagusia, elkarteak ere zerbait jarri bazuen ere.

Dirua ez bezala, beste kontu bat eskatu ziguten elkartekoei: zabalkunde-lana ondo egitea, eta aretoa ahalik eta gehien betetzea. Ez zen lan erraza, Oiongo zinea handia baita. Baina erronkari aurre egiteko prest geunden; ez, ordea, egia esan, beldur pittin bat gabe.

Ostegun batean, zazpi eta erdietan zen emanaldia. Zazpitan, 30 lagun inguru ziren zine inguruan, eta hasi ziren zenbaiten aurreikuspen ezkorrak: “Oionen euskarak, eta kulturak oro har, ez du erakartzen. Ezetz 40 lagun elkartu!”.

Ez zen halakorik gertatu, baina zinea erditik gora betea zen hasiera ordurako. Espektatibak bete ziren alde horretatik; Ttiki-ttakak zuen erronka lortu zuen. Eta Josebak eta Osinagak? Ase ote zituzten ikusleen espektatibak? Izan ere, handia zen sorturiko jakin-mina. Irakurri zer zioen emanaldiaren aurreko testu iragarleak:



“Bidaia luzeko kantuak dira hauek, edo, hobeto esanda, kantuak dira bidaia. Duela ia hamar urte Joseba Sarrionandiak Habanan sortu zituen dozena bat testu, Atlantikoa zeharkatu eta Euskal Herrira heldu zirenak eskuz esku, konplizez konplize, sekretu bat konpartitzen dutenen artean sortzen den zirrara hori lagun. Habanan jaio eta Euskal Herrian hazi ziren kantuok tabako, ardo eta kanelaz.

Orain, urteak pasa direla, idazle urrundua Euskal Herrian da, eta kantuok hartu dituzte berriro esku artean. Nola litzateke kontua letra eta kantua hurbiltzean? Zein da testu bakoitzaren atzean dagoen historia?

Zer pasatu zitzaion katuari? Zer du Anak gogoan? Non daude banku atrakatzailak? Baduzue sekretu handi eta marabillosoaren berri? Nortzuk gara normalak, nortzuk gara anormalak? Zer pasatu da Belengo portalean? Non dago gure askatasuna? Zer da bizitza, zer da maitasuna, zer da heriotza? Norena da errua? Ikusten da porturik?

Josebaren ahotik kantuak jaio zireneko kontestua entzun ostean, kantuek beste dimentsio bat hartzen dute. Katuen kontuak konplikatuek bezain interesgarriak dira, bai. Inesen ahotik, trikitixa nahiz ukelelea soinean eta makinak lagun, gertutik eta modurik gordinenean entzuteak bizipen konpartitua borobiltzen du. Orain artista bisuala batu zaie taldera, emanaldia irudiz janzteaz arduratuko dena.

Katuen kontuak entzuteaz gain, ikusi ere egingo ditugu orain”.

Ttiki-ttaka 2024

Lortu zuten ikusleen espektatiba asetzea? Bai, horixe! Ondo ase ere!

Zoragarria izan zen emanaldia! Hasieratik bukaerara! Josebak goxotasun, zehaztasun eta edertasun bereziz aurkeztu zituen kankak eta haien ingurumariak. Inesek ikusle eta entzuleak txunditzerainoko originaltasun eta egiakotasun bikainez interpretatu zituen. Eta Itziar Garaluceren irudi inprobisatuek are ederragoa bihurtu zuten emanaldia.

Amaieran, jendea ilarak egiten. Ilarak Josebak liburuak sinatzeko, eta ilarak Inesen diskoak erosteko. Eta etxera denok. Gustura, guztiz asebeteta! Ahaztuko ez dugun emanaldia gogoan ondo iltzatuta!

Baina bitzitakoa gure hitzek baino hobeto erakusten duenez Josebaren jardunak, hemen utzi dizuegu kanta baten aurkezpena:

Katua katua da, felidoen familiako ugaztuna. Baina katu-katuaz aparte, mozkorraren ondorioari ere esaten zaio katua, eta autoak altxatzeko erabiltzen den tresna mekanikoa ere katua da, eta tiro egiteko su-armen gakoa ere bai. Katu mota asko daude, orduan, eta horietako hainbat azaltzen dira katuen kantuan, garaje alboan lasai zegoen katuari buruzko abestian.

Katu bat lasai garaje alboan
buztana altxatuz miauka
kamioi handi bat heldu denean
burrunbadan balaztaka.

Txoferrak eskatu du errime,
marmarrean eta irainka:
“Gurpil zahar hori puskatu baitzait,
nork daki hemen mekanika?”

Mekanikoa, logale, etzanda:
garagardoan katua!
“Ai zer tristea langilearen
atsedenaldi ukatua!”

Halaxe da katua
nazkatu, konplikatu
eta madarikatua
bilakatu.



Elkarri agintzen hasi dira eta
katuak entzun du garbi:
“Kamioia altxatu beharko da eta
horko katu hori ekarri!”

Katua jaiki eta arrapaladan
handik eskapatu nahiz:
“Zuen kamioiak zeuek altxatu,
ni katu bat baizik ez naiz!”

Bi polizia patruilakoek
ozen dute oihukatu:
“Katu hiztunak aspaldi ziren
hiri honetan debekatu!”

Halaxe da katua
nazkatu, konplikatu,
eta madarikatua
bilakatu.

Pistola bana atera eta
sakatu dute katua.
Tiro artean ihesi doa
lasai zegoen katua.

Katua harrapatu ezinik
geu gaituzte galdekatu
Hagatik dugu ikusi legez
gertaera musikatu.

Katuak katu, katuak katu,
katuak eta katuak...
Katuen gauzak ere
bilaka daitezke konplikatuak.

Halaxe da katua
nazkatu, desagertu,
eta madarikatua
bilakatu.



Euskararen Aholku Batzordea



Carravalseca aintzira

Euskararen Normaltasuneranzko bidean jarraitzen dugu. Legeak ditugu aspaldidanik eta aurrerapenak egin ditugu, zalantzarik gabe. Hala ere, oraindik ere egitekoak, zuzentzekoak eta lortzekoak ditugu. Izan ere, Autonomia Erkidegoan ditugun bi hizkuntza ofizialetako batean, euskara hutsean bizi ahal izatea ez da posible. Zenbaitetan, euskara ez da agertzen eta, beste zenbaitetan, ez da duintasunez tratatzen.

Gizartea aldatu egin da: jendea, egoerak, lehenetasunak... Horretara dator **19/2024ko Dekretu berria** erakundeek eman behar dituzten zerbitzuetan denona den hizkuntza eskubidea bermatzera xede argiekin. Euskararen erabilpena lanerako zein harremanetarako hizkuntza moduan bultzatzera, eta euskara kudeaketa orokorraren baitan sartzera. Aurrera begira, erakunde guztien helburuak izan behar dituzute horiek, baita Arabako Errioxako Kuadrillarenak ere.

Bidean lagun izateko **Euskararen Aholku Batzordea** deitu nahi dugu, aspaldiko partez. Bertan eskualdeko kolektibo ezberdinak bildu nahi ditugu, baita ekarpena egiteko prest dauden norbanakoei ere. Denoi hitza emanez, ikuspegiak zabaldu, iritziak jaso eta lehenetasun berriak ezarri ahal izango ditugulakoan.

Maiatzaren 23an lehen bilera izan zen. Martxa hartu eta hurrengo ikasturte hasieratik aurrera normaltasunez lan egiteko dinamikak ahalbidetzea dugu helburu. Lehen saioa galduta ere, Inork parte hartzeko asmorik balu, jar dadilai harremanetan Ttiki-Ttaka Elkarteko kideekin edota Kuadrillako Euskara Zerbitzuarekin.

Bidean goaz, eta aurrera, bai horixe. Dena dela, gurean pauso asko eman behar ditugu oraindik. Erabakiak hartzeko ausardia behar dugu neurri eraginkorrek ezarri ahal izateko. Eta, hain zuzen ere, orain da une aproposena. Izan ere, Euskararen Plangintza Berrian gaude sartuta, eta herri zein erakunde guztietako planak berritu-egokitu-sortu behar ditugu.

Ez gara “goiko” neurrien zain egon behar, aurrera egingo badugu. Nork bere inguruan asko du egiteko, eta maila askotan gainera: etxean, lagunartean, erakundeen aurrean. Kontzientzia hartu behar dugu, lehenetasun berrien araberrako erronkak ezarri, egokitu, eta horiek lortu ahal izateko jarduerak antolatu. Epe baten ondoren, ibilbidea aztertu aldaketak sartu ahal izateko, ezinbestekoa dugu Aholku Batzordearen ekarpena, beraz. Bertan parte hartuz, zuen ekarpena egin ahal izango duzue! **Ez huts egin euskarari !!!**

ORLANDO ARREITUNANDIA ARINAS

Jaioterria: Mutriku

Bizilekua: Bastida

Ogibidea: ardogintza

Zaletasuna: bertsolaritza, bertsotan aritzea



Orlandori elkarrizketa egiten hasi aurretik, bi data garrantzitsu eskatu dizkiogu. Biek bertsolaritzarekin lotutakoak:

Bertsotan: 1994ko abuztuaren 15a.

Lehenengo aldia era formal batean jendaurrean bertsotan egin zuen.

Kopletan: 2004ko otsailaren 4a.

Santa Ageda bezperan. Bastidan egin zuten saio bat, eta hori izan zen inflexio puntua bera Araban bertsotan aritzen hasteko.

Bien artean, hamar urte pasatu direla ikusten dugun arren, Orlandoren ibilbidea hori baino luzeagoa izan da.

Zerk ekarri zintuen Bastidara Mutrikutik?

Zeharka bada ere, esango nuke euskara izan zela. Aitzakia bezala, ideia ona izan zitekeen, baina ondoren ikusi dut ez dela hori bete-betean izan. Nik orduan uste nuen upeltegi edo ardogintza munduan euskal hiztun gabezia bat zegoela, batez ere, upeltegietan bisitak gidatzeko momentuan. Garai hartan, enologia ikastea nire buruari jarri nion helburu. Non eta Laguardian, ondoren,

upeltegiren batean lan hori egin ahal izateko.

Baina urteak joan urteak etorri, zein izan da kontua? Bada, bisitak gidatu beharreen, ardoa egiten ari naizela ordutik hona. Beraz, laburbilduz, zerk ekarri nauen Bastidara? Bada lanak berak eta lanean euskaraz aritzeko nahiak.

Nola uztartu duzu kostaldea eta barrualdea?

Bastidan bizi guztia daramat. Hau da, haurtzaroko udako opor guztiak eta aste santukoak Bastidan pasa ditut. Bastidarekin betidanik izan dut lotura. Ama bertakoa da. Beti ibili naiz barrutik kostaldera eta kostaldetik barrura. Egia da upeltegian lanean hasi nintzen lehenengo urtean, mahats bilketa garaian, hiru hilabete eman nituela Mutrikura hurbildu gabe, eta hori gogor samarra egin zitzaidan. Orduan itzuli nintzenean... itsasoaren usaia sentitzeak eta olatuak ikusteak, herrimina sentiarazi zidan. Gaur egun, tarteka joaten gara Mutrikura; hango lagunak ez ditut galdu, eta ez ditut galdu nahi; gainera, orain etxean lau gara; nire seme-alabak udan han izaten dira lagun taldearekin.

Ze alde edo ezberdintasun ikusten duzu hango eta hemengo bizimoduaren artean?

Hasteko, hango eta hemengo gazteen planak aipatuko nituzke. Egia da hamazortzi-hemeretzi urte nituela, Bastidara etorri nintzela. Orduan, Mutrikun, adin horretako gazte bat nahiko aske bizi izaten zen; Bastidan ere antzera. Baina Mutriku Bastida baino herri handiagoa izanik, aukera gehiago ditu gazte batek plan ezberdinak egiteko. Orduantxe Mutrikun saltsa guztietan sartuta nengoen; Bastidan, gaur egun nahiko saltsatan ere ibili izan naiz, baina gazteek aukera gutxiago dituzte. Aisialdiko planak ezberdinak direla esango nuke.

Bastidako eta Mutrikuko bizimoduak bereizten dituen beste gai bat da jendearen lanbidea: itsasoa eta lurra. Lanbideek dakartzaten usainak eta soinuak. Mutrikun kresala eta itsasoko usaina nabarituko dituzue, Bastidan, berriz, ez. Urtaroaren arabera, Arabako Errioxan, ardo

usaina, mahastietako sulfato usainak, euriaren usaina lur lehorrean... Horiek guztiek lotura zuzena dute lanbideekin.

Eta alderik ikusten al duzu euskararen erabileran?

Bai, euskararekin badago aldea. Mutrikun euskaraz bizitzeko aukera daukagu, nahi izanez gero eremu guztietan bermatuta daukazu. Bastidan ez; euskaraz bizi ahal izateko, zeuk aurkitu behar duzu txokoa, lagun taldea. Ohiko zereginetan, hau da, erosketak egiteko orduan, medikuarenera joateko orduan edota tabernaz taberna ibiltzeko orduan, gaur egun, Bastidan oraindik ez dago aukera hori; Mutrikun, berriz, bai.

Euskarari dagokionez, eta beste hainbat gauzagatik ere, zorionekoa naizela aitortu behar dut. Nire bikotekidea euskalduna da, eta, ondorioz, gurean euskaraz egiten dugu. Mutrikun ohikoa edo normala den hori Bastidan, oraindik, ezohikoa dela iruditzen zait.

Noiz hasi zinen bertsoetan?

Zehazki ez dakit noiz hasi nintzen bertsoetan. Gauak eta parrandak ekartzen duen aukeretako bat hori da. Lagunartean, bat ausartzen denean besteak erantzuten du eta animatzen zara. Buruan daukat hamasei urterekin-edo bertsoak kantatzen nituela. Ez dakidana da onak ala txarrak ziren.

Lagunartekoa alde batera utzita, 1994an jarriko nuke hasiera ofiziala. Orduan eman nuen izena Mutrikuko bertso eskolan. Garai hartan 18 urte izango nituen. Gaur egun, gazteak askoz ere lehenago hasten dira bertso eskolan; nire kasuan orduan piztu zitzaidan bertsoaritzan aritzeko gogoia.

Nolako izan da zure bilakaera? Noiz iritsi ziren lorpenak?

Etxean ez daukat inolako txapelik ez trofeorik. Ez dut inoiz ezer materialik atera, baina lorpen handiak izan dira Arabak eman dizkidanak. Horiek bihotzean daramatzat. Araban abesteak gauza onak eman dizkit; horien artean, jende jator asko ezagutu dudala, lagunak egin ditudala eta jendearen errespetua somatu dudala abesten ari nintzen bitartean.

Errespetuarena azaldu nahi dut. Adibide bat daukat, eta betirako gogoratuko dut. Oionen atera ginen bertso poteo batean Oiongo bertso eskolakoak. Egun hartan telebistan Real Madrid-Bartzelona partidua ematen ari ziren, eta Oionen zegoen jendearen ia ehuneko ehun erdalduna bazen ere, bertsoetan hasi ginenean guztiak isildu egin ziren; telebistari soinua kendu zioten, gure bertsoak entzun eta txalo egin zuten. Amaitutakoan, telebistari soinua igo eta partidua ikusten jarraitu zuten. Hori herri euskaldun batean ez dakit gertatuko zen. Ni horrelako errespetuak asko bete nau.

Izen berezirik aipatu nahi duzu?

Bertsolaritzak lagun asko eman dizkit. Denak aipatzea zaila da, baina gutxieneko batzuk aipatu nahi ditut. Arabar Errioxa mailan, lan bikaina egiten eta bertsoaritzaz bultzatzaile ezin hobea dugu **Arantxa Sobrino**. Bertso txapelketetan gai emalea, bertso eskolako sortzailea, euskaltzalea eta euskara irakaslea. Bertso eskolako kideak izanik, kideak izatetik lagunak izatera pasa gara.

Araba mailan beste bi izen aipatu nahi ditut, zirikatzaile handi bi. **Oihane Perea** eta **Iñaki Viñaspre**. Nire kasuan, behintzat, akuilu izan ziren ni Arabar Errioxan bertsoaritzan murgiltzeko.

Txapelketetan ala bertso-afaritan? Non mugitu zara erosoago?

Zalantzarik gabe, bertso afarietan txapelketetan baino erosoago sentitu naiz. Onartu behar dut txapelketetan jarri dudana helburua ez dela izan lehian aritzea edo txapelaren bila joatea. Beraz, txapelketak plazatzat hartu ditut, ondo pasatzeko eta disfrutatzekeo gune gisakoak.

Txapelketak izan dira niretzat Arabar Errioxako bertsoaritzaren erakusleia. Egia da askotan telebistan eta irratan txapelketari buruz hitz egiten dela, eta tarte horretan Arabako Errioxa aipatzea lorpen handia da.

Bertso afarietan, bazkarietan edo bertso poteoetan beste lasaitasun bat dut, eta horrek disfrutatzekeo aukera bikaina eman dit.

Inoiz gertatu al zaizu errima ez asmatzea eta erabat "hutsik" geratzea?

Bai, eta, zoritxarrez, txapelketako agurra kantatu nuen egun berean izan zen. Txapelketako agurra abestu baino lehenagoko bertsoan mutu gelditu nintzen; azkenengo puntua joan zitzaidan, errima galdu eta, agian, 15 segundo zer kantatu jakin gabe geratu nintzen. Tarte hori amaiezina egin zitzaidan.

Bertsolaria jaiotzen da bertsolari ala ikasi egiten da?

Bertsolari jaio daiteke, hau da, berezko gaitasuna izan, baina bertsoa gustatu behar. Bestetik, izaera kontu bat ere bada; jendaurrean egoteko gaitasun hori izan behar da eta beti zirikatzeke erraztasuna izan, baina bertsoan egiten ikas daiteke, jakina; bertsolaria bertso eskoletan hobetzen da. Beraz, biak behar dira, jarrera aldetik jaio behar, eta gero eskoletan saiatu eta hobetu.

Kontaiezaguz Arabako Errioxan bertsolaritza sustatzeko egiten ari den lana.

Arabako Bertsozale elkartearen laguntzaz, hezkuntza arautuan hainbat lan egin dira. Horien artean, eskola orduetan bertsolaritza hurbilpen saioak. Euskararen Nazioarteko Egunean idatzizko bertsoek zuten harrera ikusita, duela lau urte Bastidan bertso eskola abian jartzea erabaki zen, eta bi talde atera ziren.

Bi talde horiek bi ikasturtez mantendu ziren. Esan beharra daukat ikasleen adin tarte oso zaila zela, eskolaz kanpoko ekintzaz beteta baitituzte agendak, eta gehienek Bastidan ikasteari utzi eta gero, Lapueblan hasi baitziren. Horrek kontaktua galtzera eraman zuen. Baina, halere, hiruzpalau kementsu mantendu ziren beste 2 urtez, eta plazaren batean ere abestera ausartu ziren.

Orain ikastolan hamabostero hurbilpen saio horiek egiten dira, eta eskolan ere aritzen dira. Iazko ikasturtean, behintzat, beste 6-7 saio. Beste norbait kutsatu nahi genuke, Bastidako bertso eskola berri ere martxan jarri ahal izateko. Oiongo eskolako kideei esker, Oiongo bertso eskola mantentzea lortu dugu.

"Toloño magalean... herri txiki bat dago... mahastien artean!!!" Hau entzutean, zer datorkizu burura?

Egia esan, sentitzen dudana da zahartzen hasi naizela. Urte asko dira hori idatzi nuenetik. Hori 2004ko Araba Euskarazerako idatzitako abestia da. Atzera begiratzen dut orain, eta, nire aldetik, lotsagabekeria bat izan zela iruditzen zait. Baina Bastida ikastolako juntakideei oso aproposa iruditu zitzaion, eta ausardiaz aurrera egiteko esan zuten. Egia da gerora Amaia Zubiriak musikaz eta ahots ederraz jantzi eta dotoretu zuela. Gustatu zait berriro entzutea.



Hori ez zen izan idatzitako abesti bakarra. Behin martxa hartuta, 2008, 2012 eta 2017koak ere idatzi nituen.

Entzun dugu aurten txapelketak utziko dituzula. Hala da? Zerk eraman zaitu erabaki hori hartzera?


Bai, horrela da. Aurten txapelketan izena eman nuenean, erdi erabakita nuen. Laguardian egindako saioa oso ondo joan eta sailkatu arren, uzteko ordua zela ikusi nuen. Txapelketak ondo eraman arren, iruditzen zitzaidan ni betetzen ari nintzen lekua atzetik datozen gazteek merezi zutela. Atzetik datozen Arabako gazteak indartsu datoz; ideia berri eta oso freskoak dituzte eta asko dute esateko. Nire denbora agortu dela uste dut, eta gazteei lekukoa emateko momentua iritsi da. Entzuleek gazteei entzutea ere eskertuko dute.

Ttiki-ttaka 2024



denborapasak

Ezetz aurkitu desberdintasunak!





Ikastola

E	D	X	G	A	S	T	E	L	A	N	I	A	F
I	N	G	U	R	U	N	E	A	L	A	S	J	F
M	R	W	B	W	V	S	K	O	A	N	Y	I	G
M	A	T	E	M	A	T	I	K	A	D	E	Y	Y
R	H	K	L	E	U	S	K	A	R	A	P	C	B
S	O	I	N	K	E	T	A	F	Q	Z	P	M	I
E	J	L	P	A	T	U	T	O	R	I	T	Z	A
I	M	F	R	A	H	F	D	S	Z	B	S	H	K
O	I	L	E	Y	C	P	J	J	A	T	I	O	X
C	R	L	T	P	R	A	V	R	Y	A	W	K	N
G	G	F	M	Q	J	L	V	C	D	K	Q	K	P
L	B	D	U	Z	P	L	A	S	T	I	K	A	R
C	J	O	O	M	U	S	I	K	A	T	U	G	R
V	G	I	N	G	E	L	E	S	A	H	N	R	M

- Euskara
- Ingelesa
- Matematika
- Plastika
- Tutoritza
- Gaztelania
- Ingurunea
- Musika
- Soinketa



Baiez asmatu!

Nor etorri da?

<p>Non dago Koldo?</p>	<p>Metal bat.</p>	<p>Non dago txoria?</p>
<p>Zenbat denbora behar duzu lana amaitzeko?</p>	<p>Zer jaten du ardiak?</p>	<p>Non utzi duzu bizkotxoak?</p>

Nolakoa da ariketa?

Norekin joan zara zinemara?

Zer ekarri duzu jateko?

Non jezarri nahi duzu?

non gogoia, han zangoa



Tfiki-tfaka 2024



Tfiki-tfaka 2024



t tiki
taka



euskaldunon elkarteak

*Bazkide izan nahi baduzu, behealdeko fitxa bete ezazu eta bidali gure helbidera. Kuotari dagokionez, **20 euro** dira urtean eta gazteentzat borondatea. Honen truke bidaliko dizugu aldizkaria, informazioa eta ekintza eta bileren berri.*

Egin zaitez bazkide!

Abizenak: _____ Izena: _____

Jaioteguna: _____ Helbidea: _____

Herria: _____ Pta. Kodea: _____ Tfnoa: _____

E-posta: _____

IBAN eta Kontu korrontea: _____